

Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Urola Ibarreko Biltzarrak

Zaharra etetzeke, gaurko giroari atxiki

Urola Ibarreko «Karmelo Etxegaray» taldeak lehen pausoak emanik, eta Azpeitiako Antxieta etxea leku berezi-berezitat harturik, Abendu honako zazpian emango zaie hasiera «Urola Ibarreko Biltzarrei». Jende asko ibili da lanean, herri guztiak hartu baitu arazoa berea bezala. Antolatzaile batzuekin hitzegiteko egokiera bilatu eta aurkitu dugunez, elkarrikeria hau eskeintzen dizugu, irakurle. (Ikus 7garren orrialdean, biltzarren araudia).

—Zer dela eta antolatu dituzue «Urola Ibarreko Biltzar» hauk?

—Garai batetan Euskal Herriko hainbat herritan, «Euskal-jai» izenez antolatzen ziren erromeri giroko jaialdi soil batzuk. Haiek beren egitekoa beterik utzi zuten; eta folklore kutsua bazuten ere, ez ziren guztiz baztergarriak. Orduz lehen galdu ere egin ziren, eta kito ezer gabe gelditu ginen. Haiek utzi ziguten hutsartea bete nahirik goaz, Urolan Biltzarrok eratzera. Lehengo zaharra etetzeke gaurregungo giroari atxiki.

Bestalde, azkenaldi honetan bailaran gose-egarri bat nabari da, kultura alorrean. Jende kezkatu asko zerbait egiteko gogoz arkitzen da. Haiei guztiei erantzutearren ere, bagoazkie ekintza hau tajutzeraz; eta denen gainetik gure kultura indarberriturik ahal dezakegun prestuena egin nahi genduke.

—Noiztik ari zerate antolaketan?

—Joan zen Abuztuan hasi ginan lehendabiziko urratsak ematen. Lanean pittin bat hasi orduko, jendearen arrera berroz ohartu ginen. Ateak zabaldurik aurkitzen genituen toki gehienetan; eta honek aurrera jarraitzeko gogoia eman zigun.

Pundu asko zegoen ikusi eta aztertzeko, batzuek guk bakarrik soilki tajutu ezinezkoak. Joxanton Arze, Ondarzal, Xumeta, Uria, Unzurrunzaga eta Balerdiri joan gintaizkien gure asmo guztiak agertzera. Jaun haiek, lehenengo momentutik alde edo molde guri laguntzeko prest aurkitu genituen. Egitaraua mamitzen ari zen araberak, jende gehiagoren premian aurkitzen ginen. Erantzuna ordea, ezin arretatsua izan. Herriko kuadrila, gazte, zahar, elkarte guztiak, irati, hiru diru-etxe, e.b. Denek hartu dute parte antolakizunean. Egitaraua beraz arras herrikoa da. Halare puritanoren bat egonen da oilarrak kukurrikurrik jotzen ahal duen galdegingo duena.

—Nagusiki, zer lortu nahi zenukete Biltzar hauekin?

—Banan bana has gaituzen guk lortu nahi ditugun xedeak aipatzen. Ez dizugu luze jardungo. Zeren eideak ehunka orri betetzeko lain haina eman bait dezake. Bost pundutan bilduko dizugu; eta ez dira gainera puntu metafisikoak eta utopia lorkaitzak.

1) Gure kultura ikuspegi berri batetatik azter nahi genduke. Egitarauan badira zenbait zati, oraino gutxi landu direnak; baina gure kulturaren nortasuna sakontzeko erruz lagun ahal dezaketek. Aztergailu berri hauek herri-kulturaren atxikitzea, gure helburu nagusi bat da.

2) Lehengo «Euskal-jai», eta egungo kultura ekintza hauen lokarri izan. Bien arteko hutsunea beteaz. Helburu hau, kultura jorratuaz eta goragoko mailara jasoz iriziko dugu.

3) Jendea, kultura arloan hezi. Hezi-molde berri baten hastapenak agertuz. Sarritan abusatu egin da, jendea kezkatzeke dagoen ustetan. Maiz guk uste baina kezka haun-

diagoren jabe da jendea. Beti kezkatu zai egoteke, hezibideak aurkezteko garaia ere iritxi zaigu.

4) Artistak herriarengana hurbildu edo alderantziz. Euskal Herrian hainbat artista dugu mundu guztian barna dabilena, eta guk ez bide ditugu ezagutzen. Tamala da herriko artistak erdal aldizkari bitartez bakarrik ezagutzea. Leize zulo honen zubi izan nahi genduke.

5) Iruña eta Tolosan ospatu ziren kultur saiociei jarraipen bat eman nahi izan diogu. Haietan xahutu ziren lan eta esperientziak, hamabostaldi batetan agortzeko lujorik ez bide dute. Honela jokatzen beharturik gaude, Euskal Herri osora ekintzaok zabal ditezten.

—Zer moduzko Euskal giroa duzue Urola alde honetan?

—Hemen bereizkuntza bat dugu. Gipuzkoa guztian euskara gehien bat egiten den ibarra beraz izango dugu, eta gertaera honek beti ere Euskal giroa berotu egiten du. Orain arte eratu izan diren ekintzak, arrera ona izan dute. Azkenengo hau beraz lekuko. Baina oraindik Euskal giroa jorratzen bada lanik franko, eta egiteko honetan Loiolan sortu den «Gogartee-txeak» erruz lagun dezake. Bestetik, Azkoitian bertan oraintsu «Kimu» deritzen kultur talde berri bat ere sortua da. Guztion artean zerbait funtsezgorik egingo ahal dugu.

—Artea eta hirigintza nola lotu dituzue?

—Zenbaitentzat badirudi artea museoko hautsartean egon behar duen zirriborro bat dela. Artea, olerkia bezala, mezua eta sena duen zerbait da; eta egungo egunean herrian sekula baino arte behar gehiago dugu. Hirigintza berri arte aplikatu bat dela esango genduke. Guk arkitektura Euskal estetikaren baitan sartzen dugu. Gaurregun industriagintza eta espekulazioaren astakerak birrintzera deitua dago hirigintza. Noiz ukan dute gure herriek gaur hainako premia poluzioetik irtezeko?...

Hildo honetan, Xabier Unzurrunzaga bere taldearekin egiten ari den lana benetan ixtimatzeakoa da.


—Arte gaia gehiegi bezala ez ahal duzue hartu?

—Gure ustez ez. Orain arte gisa honetako antolaketan, bertsolari, kantari, trikitilari eta abar ez dira faltatu; baina bai arte gaia.

Guk beste haiek arbuatu, artea ere sartu dugu. Urtean zehar, beti antolatzen ditugu ekonomia, gizar-egintza, kondaira, teologia eta beste gai askori buruzko azterketak. Artetari gagoziola ordea egundo ez. Beraz artistaren gorazarre bat ere izan nahi dute Biltzar hauek.

—Artista, antzerki, dantzari eta eresilarien artean, zer arrera izan duzue?

—Oso pozik gaude egin duguten arreraz. Esku zabaltasun guztiz hartu gaituzte. Herriarengana askoz gehiago hurbildu nahirik dago artista asko.



Antxieta etxea, Azpeitia

Orain arte, artistaren lana jauntxo dirutsu bakar batzuek eskuratu dute. Hemendik aurreruntz artistaren produzioa herriarentzat izatea nahi genduke. Agian honen soluzioa, ibarretan expozizio iraunkor batzuek lortuko genduke. Artistak gure kulturaren bideak zabaldu nahirik aurkitzen ditugu. Biltzar hauek antolatzen ere parte haundia hartu dute. Gutxiarik esperientzia bat jasoko dugu behintzat.

—Euskal Herrian, gaur nola ikusten duzue kultura alorra?

—Azken urteotan Euskal Herrian mugimendu haundi bat sortu da

NON ZER	
● EUSKARA NAFARROAN Mixelena	3 garrenean
● ZER, ZERGATIK... ETA BESTE ZENBAIT PUNTU Imaz	3 garrenean
● LANGILERIA ETA BESTE PROLEMA BATZUREN INGURUAN Knörr	5 garrenean
● «MUNIBE 1972» Aizpurua	6 garrenean
● HAURREN IDATZ-TXAPELKETAK Trikuarrieta	7 garrenean
● «JAINKOA EZ DA ZEHARO IL» Goenaga	11 garrenean

ohartzten, beren sujetibismo ustelak inongo taldekeria guztiak sutzen dituela.

Orain arte egin denakin ezin gindezke liluratu. Egungo ikastole-tako barne-liskarrak ere erro-errotik aztertu beharrezkoak dira. Euskal Herriko kondaira, G. Veneroren gisako atzerritarrek egiten ari zaizkigu. Honetan kondairagileak oso bakarka, elkarren arteko loturirik gabe ari dira lanean.

Bestetik zenbait lan-sail erabat profesionalizatu beharrean ditugu. Orain ez gara hasiko lan-sail bakoitza aipatzen. Baina kulturaren barrutian zehar abiatu dena, arin ohartzten da hutsune guztietaz.

—Inongo diru laguntzarik izan ahal duzue?

—Herrian bertan eta zehatzago esanda, antolatzaileon artean, ordainduko dugu gastu guztia. Berrogeita hamar eta ehun pestako bono batzuk aterako ditugu borondatez lagundu nahi duguten guztientzat. Hortik aparte sarrerak ipiniko ditugu ahal den modurik onenean. Arazo honetan gure helburua zera da: Alegia Biltzarrotan parte hartu nahi duen jendeak ahal duen dirurik gutxienez xahu dezala; zeren bestela asteko soldata osoa gastatu beharko luke. Ez dugu uste inor atzera geldituko denik, diru kontuagatik.

Diru txamarren bat geldituko babiliz, arras herriko beharretarako izango litzake. Baina gaurkoz zail somatzen dugu sobrakirik gelditzea. Gastu handiak eginik bait ditugu. Baina tira! sinekoak kendurik larru gorririk ez ahal gaituzte utziko.

—Jarraipenik izango ahal dute Biltzar hauk?

—Ez jarraipen hutsa; bakarrik guk utzi ditugun zenbait zulo beteaz jarraitu behar dute gainera. Hala gerta dedin ari gara lanean. Lehenik behintzat Azkoitiako Inaki Uriarekin hitzemaniko gara. Azkoitiarrek ere badituzte beren asmoak Intraustiko jauregian betetzeko. Antxieta agertuko den expozizioa, Azkoitian ere aisa eratu daiteke. Bestetik, udaberri aldera, arkitektura gaitzak harturik, lan sakon bat egin nahi genduke. Gerorako, beste hainbeste musikarekin ere. Kontuan har zazu hastapenetan gaudela oraino. Aldiz aurrez badakigu, Biltzarrek geuk nahi genduzen bezain ongi ez zaizkigula aterako; baina ongi merezi duen esperientzia bat urratzera goazkizun.

Bestalde tamala izango litzake Urolako mugetan bakarrik gelditzea. Guk bezain ongi eratzeko gai bait da beste zenbait iElkarte. Adibidez hor ditugu Arrasaten Danok eta Bergaran «Alkartuna». Beraz jarraitze kontu honetan beste ibarrek ere badute hitza.

IZARRAITZ



oharra

Zeruko Argia bere egitekoa betetzen aurrera doa, eta ez da gutxi euskal aldizkari batentzat aurrera egi- tea. Baina pauso bizkorragoz egin behar du aurrera. Gero eta argiago, errikoia eta biziago egin nahi ge- nuke.

Bide zabala dugu maite. Ez da erraz. Egoera latzak, arazo larriak, eztabaida biziak... Bide estua eta alder- dakeriaz betetako bidea artzako arriskua noiznahi eta nonahitik. Baina utikan bide estua. Gero eta estuago bihurtu ohi da. Irterarik gabeko bide azkenerako.

Iritzi eta jokabide desberdinen arteko elkarrizketa onurakor eta argigarriak nahi ditugu. Ez alferrikako ez- tabaida antzu eta nahastaileak.

Errietako berriak ugaltzen ari gera. Honek idazleak eta irakurleak biak gehitzen ditu. Errietako alfabetatze taldeei idazteko aukera ematen die.

Beste zenbait gai ere erabiliko genuke, baina hor- tarako arpedun berriak behar ditugu. Arpedudunen diruz bizi bait da gehienbat Zeruko Argia. Arpedu- nek indartu ere indartu behar dute.

Bakoitzak arpedun berri bat egiten badu, Zeruko Argia oparotsuagoa sortuko dugu. Orregatik, arpedu- dun bakoitzari, beste arpedun berri bat, arren, egin dezala eskatzen diogu.

ZERUKO ARGIAK

**aristegui hermanos**

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

ORAIN

Bilose - berria

GARBIKETARAKO

5 Kilotako Tanborretan

Neurriko aparraduna eta karearen etsaia

Lavadora automatikoentzat aukera-aukerakoa

Garbiketa programa guztietarako teknika bereziaz sortua

Bilose

ERABILI DAITEKEANA

UR OTZETAN ERE

NERE BORDATXOTIK**ELIZ KOROAK INDARTUKO OTE?**

Eun urte igaro dira Perossi musikari aundia jaio zanetik Perossi'ren eliz-musika ain da- go sartua Euskalerrian, ain da ezaguna...

Orain batean eta bestean, mai- xu aundi ura gogoratuz, ba-di- rudi susperraldi bikain baten atarian gaudela.

Gogoz irakurri ditugu azken egun auetan, Zarautz, Zumaia, Zeztua, ta beste erri batzuetako berriak.

Eliz koroetaz idatzi dute berri- riemaleak "korrespontsalak".

Gazteren batzuk nunebait, oso gogotsu azaldu dira koroak ind- artzeko ta txertu berri bat ezar- tzeko.

Eliz koroak porrot eginda be- zelatsu daude. Erria da orain kantatzen duena ta au oso ondo dagoela aitortu bear.

Alare, gure ustez, urtean egun berezi, seinlatu batzuk izaten dira elizkizun bereziak eskatzen dituztenak; goraxeagoko mailla bat eskatzen dutenak, alegia.

Mailla ori emateko al da ezer kuru on bat bezelakorik?

Gipuzkoa'ko erririk txikien eta xixtriñetan ere zoragarri kan- tatzen zan garai batean.

Gogoratzen gera beingo ba- tean Urrusti'go elizatik zoratu- rik irten giñala.

Nork pentsa bear zuen an alako korurik egon zitekeanik?

Kosta errian bizi geranez, ba- dakigu zer esaten ari geran.

Kanpotarrak, espaniarrak, fran- tzes, ingles edo nundinaiko, txo- raturik irten izan ziran Zar- autz'ko parrokitik Ezin sinistu alako abeslari talde bat egon zi- tekeanik errian.

Zer esan Bergara, Azpeiti, Az- koiti, Zumaia, Mutriku, Mondra- goi, Errenderi, Tolosa, Pasai, ta beste ainbat gipuzkoar erritako koroetaz?

Gure Orfeoi sonatuak orrela- xe osatuak dira; parroketako abeslariz osatuak.

Abeslari on oiek danak eliz koroan izan zituten asiera. An asi ziran musikan ezitzen: an izan zituzten lenengo maixuak.

Asi galdezka Donosti'ko Orfe- oian, "Coro Easo'n", "Santa Ce- cilia'n" eta abarretan.

Gazteak eliz koroak indartze- ko benetako gogoia artzen badu- te, eman lezaiteken alaitasunik aundiena emango diete gelditzen diran abeslari zarrei.

Ilun triste, burumakur ikusten dira auek aspaldian. Lengo den- borak gogoratzen dituzte; lengo talde zoragarri aiek dituzte go- goan eta ainbat aldiz kantatuta- ko meza berdingabe aiek.

Koru on baten jabe dan erria, erri inbirigarria da.

An ba-dago ikasi naia, an ba- dago kultura kezka, an ba-dago aparteko goi-mailla bat.

Tabernaz-taberna emen zurrut eta an zurrut ibilita ezta sor- tzen eliz kuru baliosorik.

Sakrifizio pixka bat eskatzen du onek, ordu jakiñetan etsaioak egiteko eta ikasi bear diranak ikasteko.

Ezerk ez gaitu pozten urteko jai aundi batzutan ondo kanta- tutako meza eder bat entzuteak ainbat.

Onelaxe oitu giñan txikitand- dik, eta oraingo utsaldi ta bee- rakoak naigabe aundia ematen digu.

GANADU ZENBAKETA DALA-TA

Zenbatzeak kontatzea esan nai du: nun zenbat ganadu buru dagoen jakitea.

D. Roke Aranbarri jaunak es- kutitz (karta) batean adieraz- ten digunez, España guztian ari dira zenbaketa au egiten.

Gipuzkoa'n ere bai, ta... oso pulamentuz gafiñera!

Alare, itxurak diranez, ganadu- zale danak ezte bear bezela erantzuten.

Nekazaria piakaitza da, ta as- kotan arrazoi du ala izateare- kin. Buruko asko artua baitago lendik. Errezelo txarrak artzen ditu onelako jakin-miñak so- matzen ditunean.

"Orain ere zerbait kentzeko xixtima izango ditek", esaten du bere kolkorako.

Mundu osoan egiten dana da ordea zenbaketa au. 1930'garren urtean egin zan lenengoz mun- du zear. Bigarrenez 1940'garren urtean zan egitekoa baiña gerra nagusiak galerazi zuen.

Agindu ori artuta betetzen ez- padezu, nekazari maite, ondore- na eztezu ohea izango.

Zigorra (multa) emango di- zute.

Orduan pena izatea alperrika- koa da.

Denboraz zaude orain. Azaldu zaite urren daukazun Nekazari

Alkartasunera. Ofizina batzuk ba-daude ortarako propio jarriak. Jakiñean egongo zera zein toki- tan.

Estadistika bat egin nai dute. Onek ezte beste gafiñontzeko go- raberarik.

Len ere, bein baiño geiagotan, zoritxarrez, esanik entzun etzu- tenak, agindurik bete etzutenak, gaizki irten ziran. Etzaitzela oietakoa izan.

Gaur, igandea, abenduak iru, sokatirako txapelketa da Za- rautz'en ospatzekoa.

Bai jendeak erantzun ere, arra- nek ezpaitu! Arritzeko moduan gero!

Au dala-ta, bi saio izango di- ra. Lenengoa goizeko amaiketer- dietan; bigarrena, arratsaldeko lauterdietan.

Alare beldur gera pesta luze- txoa ez ote dan izango.

Bizkor biltzea komeni da al- perrikako asirik galdu gabe. Fe- derazioko gizonak galtzak bete lan izango dutela pentsatzen degu.

Goizeko bederatziterdietan kuadrilla danak Zarautz'ko Zine- ma pelotalekuan egon bear du- te pixaketarako. Puntu puntuan gafiñera. Beranduegi dabilzitanak ezte jokaterik izango.

Dakizutenez, talde bakoitzak eztauka 750 kilotik gora pixa- tzerik: ortan errenditu bear du- te.

Zortzi gizoneko taldeak dira. Izenak eman ditzagun:

Araba'tik: Llodio'ko taldea.

Gipuzkoa'tik:

Agiña'ko taldea.

Eskoriatza'ko taldea.

Ernani'ko taldea.

Mutriku'ko taldea.

Urnieta'ko taldea.

Urretxu'ko taldea.

Zarautz'ko taldea.

Bizka'i'tik:

Arangoiti'ko taldea.

Dima'ko taldea.

Erandio'ko taldea.

Lankin'ko taldea.

Markiña'ko taldea.

Mendexa-Lekeitio'ko taldea.

Ontatik atera kontu nolako ixtimazioa izan duen Zarautz'ko txapelketak.

Lenego saria 17.000 peztakoa izango da.

Nora joango ote da? Araba edo Bizka'i'ra?

Gipuzkoa'n geldituko ote?

Laister jakingo degu, Jaunak nai badu.

BASARRI

EGIZU arpide berri bat
Urte Berrirako
egizu beste arpedun
bat

ZERUKO ARGIA
SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Goroetize

EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraul
Urizar
Siglo XX

TRANSPORTES **azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al- cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almeria, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Cerretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTJETATIK

Bias de Leze Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65

DONOSTIA

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46

GAZTEIZ (Vitoria)

APAIZGAITEGIAZ

ITXAROPEN ETA ARRISKU

Ez da aspaldiko kontua: Sortzez Garbiaren eguna; apaizgaiak, sotana beltzaz eta lepaingurua beka gorri luzeaz apaindurik, kaleetan, eskoletan eta elizetan. Liburuxkak, horma-paperak, idazkiak eta irrati-saioak egun horren berri alde aurretik emanaz. Oraindik bizi da, beren pozik haundiena semeren baten ez-painetatik "apaiz egin behar duela" entzutea litzakeen, amarik. Meza berria zen herri batean gerta zitekeen gertaerarik haundienetakoa.

Aspaldiko kontuak dirudite. Antzinako gizonenak. Baina atzokoak dira. Guk geuk ezagutuak. Oso zaharrak dirudite, gure buruak urte-mordo haundia irentsi bait du denbora laburrean.

Gaurko agoxea baina atzokoa hau ere: hemeretzi apaizgaitegi itxi dira Espainian.

Begira dizalegun Euskal Errikoei. Erdi hilik daude Bilbao, Donostia eta Iruinekoak. Itxirik Baionakoak. Gasteizkoak dirudi oraingoz indartsuena. Noiz arte ez dakigu baina.

Atzo arte lepozurreraino beteak zeuden. Arinkeria bat litzake gertatu dena hitz bitan aztertzea.

Baina gauza bertsua apaizen artean gertatzen da. Sailkatzen hasiz gero apaizgintza utzitakoak aipatuko ditugu lehenik. Zebaitik ez dakigu. Mordoxka dela bai. Hauen ondoan beste sail haundia, gizarteko zereginetan eta irakaskintzan batipat murgilduta. Apaizgaitegiaren sortzen den zalantzarakin batera sortzen den joera berria. Apaiz dira, baina gizarteko lanetan dihardute. Hauetatik batzuk, apaiz-pozez eta bieren ametsak betetzeko ustez. Beste batzuk, berriz, zerbait eginez eguna betetzeko asmoz. Azkenik, orain arte bezalako apaiz, izapaz. Lehengoan apaizkeran bizi, batzuk besteak baino itxaropen edo etsipen haundiagoz, eta eran ere, bakoitzak bere aldetxoarekin.

Badira, noski, sail hoietan sartzen ez direnak. Erakunde baten barruan daude denak, nahi badute eta nahi ez badute. Erakunde honekin dituzten harremanen leihatilatik begiraturik batzuk buruzgaitzaren saltsan sartuak, txertatuak eta korapilatuak ikusten ditugu. Ez ditugu beren lanaz neurtzen. Gutxi asko pozik eta egoki ustean ari dira lanean, baina babestu samar edo eroso antzean aurkitzen dira. Txabolaren barruan daude besteak ere, baina etsita, zuzendaritza saltsatik urrutit, eguneroko ogia elizgizonetan edo gizarteko lanetan irabaziz.

Baina badugu irugarren sail bat, apaizgaitegi gorabeheren batera sortua. Ez onartua eta ez gaitzetsia, bakarrik "utzia" baizik. paiz-ametsez, gutxi-asko egokiz, abiatuak lanean, ez goiko zuzendaritza eta ez betiko apaizkerakoetan dute lekurik. Erakundearen barruan daude baina ez erakundearen saltsan. Gizarte bideetan ari dira lanean eta bide hoietan bizi nahi dute apaizgoa.

Apaizgaitegiaren irakin garaian sortzen eta hazten da talde hau.

Zergatik aipatzen dugu arazo hau apaizgaitegiaren egunaz? Apaizen egoeraren ondorio bat besterik ez bait da apaizgaitegia. Gero gertatuko denetik zintzilik dande apaizgaien asmo eta ametsak. Gero egingo dena distiratsua, ederra, alala, egokia eta baikorra denean, hortarako aurrez egin behar den antolaketa ere hala izango da ezpairik gabe. Gerokoaren baitan dago aurrez hartzen den gertuera. "Atzeak erakusten du aurrea nola dantza".

Atarian dagoen eguraldi eta giroaren ezaugarri besterik ez da apaizgaitegiaren barrukoa. Gero jasoko denaren neurrian eroin ohi da. Apaizen arazoan sustraitua datza apaizgaiena.

Beharrezkoa dela uste dugu apaiza. Eta Kristo, Jaungoiko dela sinesten dugulako eta gizonak Jainkoaren premia duelako, uste dugu honela, ta Kristo Jainkoak, apaizak egiten duen sakramentuz gizarteratzea erabaki du.

Kristo sinesten badugu eta guretzat egiaz zerbait bada, kezkatu egin behar gaitu apaizgaitegiaren egoerak. Apaizgoa eta honekin Kristo bait daude hauzitan. Ez ditek heziz kanpotik zuzendu, barrukoan eskastasuna edo asmo txarrak epaituz. Hori or konpon egitea da.

Beharrezkoak dira ikastaldiak apaiz eta kristaudentzat, baina ez apaizgaitegiaren daudenek zerbait egiteko lana eduki dezaten. Bide honek eratzaleen barruak lasaitzeko balio du baina ez arazoari erantzuteko.

Apaizgaitegiaren eguna ez ditek ohiturazko egun bat izan. Arazoaren barruan murgiltze bat eta otowitz bat izan behar du egun honek, apaiz eta kristaudentzat apaizkera egoki bat asma dezagun, Kristo gaurko eta hemengo gizonen artean tartekotu dadin.

EUSKARA NAFARROAN

Aspaldi ez duela, «Principe de Viana»-k argitaratzen du, Iruinean, ohi ez bezalako liburu bat, gure artean maizegi ikusten ez diren horietakoak: Jose Maria Sanchez Carrion-en El estado actual del vasco en la provincia de Navarra (1970): factores de regresión, relaciones de bilingüismo. Ez du, dirudienez, hauts behiegi eraikei Euskal herrian. Ez dakit Nafarroan inor mintzatu ote den liburuaz. Bestetan, liburua agertua zela adierazi du Anaitasuna-k eta hortaz mintzatu da «Amatiño»-k hermen bertan, azaroaren 19-koan. Nik, orain, zerbait puntutan, dakidanaz baliaturik, esanak gehitu eta zuzendu nahi nituzke. Aurren-aurrenik, hauxe esan nahi nuke: Sanchez Carrion ez da irakaslea, ez Granadan ez beste inon. Ez da irakaslea, ikasle soila baizik. Eta ez diot diodana irakasle izena, behin batean Lacombe idatzi zenez, merkeegi saldu ohi delako Euskal herrian. Baluke merezimendurik liburu honen egileak irakaslea baldin balitz; are gehiago, ordea, ikaslea delako oraindik, den bezala. Joan den urtean, azken ikastal-

dia hastean ezagutu nuen, Salamancara agertu zenean. Egia da, lehentxeago alde egina zuela norkaitek Granadatik, ea hemen euskal gaitan trebatzeko modurik izango ote zuen. Zerbait egiten zela erantzun zitzaion, edo behintzat zerbait egiten zelako itxurak egiten genituela. Ez nintzen, gainera, gehiegi kezkatu jende ugari izaten baita, eskarmentua duenak dakien bezala, hau edo hori ikasteko gogo bizi batean sentitzen duena. Gogo bizi hori gero, maizetik, etorri bezain laster joan ohi da. Baina, duela urte bete, hemen agertu zitzaion euskaraz mintzatzeko zekielerik. Gero, harriturik gelditu nintzen liburu bat inprentan zuela jakin nuenean, zertaz eta gure hizkuntzaren Nafarroako egoeraz. Gerokoa, istorio luze xamarra da, suak probak, mapa eta guzti, erre baitzuten behin batean. Kontuan eduki behar duguna hau da. Liburu egiteko gaien bila 1970-eko udan hasi zenean, Sanchez Carrion-ek, ikaslea zelarik, ozta-ozta zuen bukatua lehenbiziko urtea, komunetako —hitzaren itsusia barka—lehenbiziko urtea. Unibertsidadean hasi berria zela esan

dezakegu, beraz. Eta berak bakarrik daki, eta berari entzun diogunak ere bai zerbait, nolako neke-larriak pasa zituen harako udaldi hartan, Nafarroan gora eta Nafarroan behera galdezka zebilelarik. Gaita funtsez eta buruz aztertua dago liburuan, buru batetik bestera. Buruz ez ezik, baita bihotzez ere. Euskararen hango egoera —bagenuen susmo— ez da pozgarria, baina nabari da egileari guri bezain penagarri zaiola. Azkeneko kapituluak, hain zuzen, hizkuntzaren alde jokatzeko egungo egunean aurki daitezkeen bideez mintzaten da. Badakitz zerbait euskaltzalek ez duela liburu arras gogoko izango: lasaia bizi gabe horrelako ispilu egizalari ikusi gabe, auzen eta deitoren darigula. Baina, «Amatiño»-k dion bezala, erremediari bilatuko baldin badugu, gaitza norainokoa dugun jakin behar aurrenik. Eta Nafarroako zertan den jakin dezakegu guztiok orain granadar honi eskerrak. Euskaltzetasuna ageri-agerian darama, baina, hori gora behera, badaki ere zentzuz eta sarkonki lan egiten.

MITXELENA

Zer, Zergatik,... eta Beste Zenbait Puntu

JOSE ANTONIORI ESKUTITZ AGIRIA

Irakurri berria dut Arrasateko ikastolan sortu den eztabaidari buruz egin duzun azterketa (ANAITASUNA, 1972ngo Hazilaren 15-ekoak). Zure iritziz «geure herrian 1972 urtean izan dugun gertakari handienetarik bat, handiena ez esatearren» izan da. Ez, ez dihoakiguxo euskaldunoi daramagun 1972ngo urte hau.

Hau nahikoa ez dugularik, Arrasateko geure arteko borroka. Ikastola honetan «zer jazo den agertzea» ez zaizu «iruditzen bidezkoa», edo batetik, izuea izango omen litzakeelako, eta bestetik «gertakari hutsa hotza» dela uste dugulako kasu honetan. Zer jazo den baino interesgarriago iruditzen zaizu zergatik jazo den jakitea.

Hau esan ondoren, ANAITASUNA berak aurreko zenbakian azaltzen zituen Eusebio Osaren hitz batzu aipatzen dituzu. Honako hauek dira: «Hain dago pentsakera alternatibista hezurretaraino sarturik, jendeari oso zail zaio nolakoaren eta nola-ren munduan sartzea (jende xeheaz eta zapalduaz ari naiz, zartaginarean kirtena eskutan dutenek planteamendu berririk zergatik onhartzen ez duten ongi baitakigu, jakin!)».

Sariera hau eta planteaketa alternatibista hau azaldu ondoren, Arrasateko gorabeherak aztertzen hasten zara. Zure iritziz Arrasateko ikastolan gertatu den benetako borroka ez da izan Juntaren eta irakasleen artekoa (hori pentsatzea «simplekeria» izango litzake), baizik eta Juntakoen eta guraso-hurren artekoa. Borroka horretan Juntak, segurantzaren chantage baten bitartez, «abertzale» patentea azalduaz eta gurasoen fede onaz eta dato faltaz baliaturik, gurasoek explotatu ditu, bere nahia, planak, programa eta ideologia inposatuaz. Junta zapaltzailea izan da; gurasoak, zapalduak.

Hau izan bada Arrasateko eztabaidaren mamia (eta itxura dagoenez ez duzu duda handirik zeure azterketa egin ondoren), garbitu behar dizkidazu puntu batzu, neure buruari argi piska bat eman dizaiodan.

1.—Zer dela-ta aurkitu da Junta planak, programa bat eta ideologia bat inposatu beharrean? Ez ote, «beste» plan, programa eta ideologiaren bat zebilelako ikastolan? Hala dirudi. Ala ez?

2.—Ziur ahal zaude «beste» plan, programa eta ideologia hura guraso gehienek pentsakerarekin bat zetorrela? Horrela bakarrik explika daiteke «explotazio» hori. Beraz, ziur ahal zaude?

3.—Hala bada, Juntaren pentsakera eta gurasoen elkarren aurka daude. Orduan, zergatik bidali dituzte —eta bidaltzen dituzte— gurasoek beren haurrak ikastola horretara? Hain kaska-motz ahal dira?

4.—Zuk adierarten duzunez, irakasleek ez dute zer ikusirik plan, programa eta ideologia horrekin. Ziur ahal zaude hau honela dela?

5.—Horretaz gero, zergatik kaleratu dituzte ia irakasle guztiak?

6.—«Gurasoak eta haurrak in-txaur azalak itsas zabalean bezala izan dira, «abertzale» izena patentatu nahi duen talde baten eskuetan» diozu. Talde bat bakarra ahal da izen hori patentatu nahian dabilena? Ez ahal duzu beste ezer somatu zeure azterketa egiten ari zinelan? Ez ote dira ere beste norbaitz beste izenen bat patentatu nahirik, adibidez «herria» delakoa? Zenbaitek guraso-haurrak nola erabili dituen —zure iritziz— irakurri dute; eta besteek nola erabili dituzte? Nola? Eta batipat, nola erabili nahi dituzte edo erabili nahi lituzkete?

7.—Diozu: «interesantea litzateke, nahaste hau nork probokatua izan den sustraitik jakitea». Zure asmoa omen zen ez «zer jazo den agertzea», baizik eta «zergatik». Puntuho ni buruz, ez ahal duzu deus somatu?

8.—Baita honako hau ere idatzi duzu: «izan ere, nola uler daiteke, irakasleak marjinaturik dituen Junta Zuzendaria bat?». «Zergatik» marjinazio hori?, galdatu nahi nituzke.

9.—Eta azkenik, beste lerrook ere irakurtzen ditut zure azterketan: «Lana banatu zenetik, gizonok pedagogia maisuen eskuetan utzi baguenen, eta aparteko lan horretarako izendatu bagenituen, pertsona hoiak zenbait eskubide eta posibilitate, eta nortasun sufizientea behar dute, metodo bat eta

programa bat, diskutitu eta ondo azterkatu ondoren, erabiltzeko». Galdera bat egin nahi nituzke honi buruz, zerbait argitu ondoren. Lana banatu zenean —hobeki esan, irakaskintza bereizi zenean lana banatuta gero—, egia da maisuen eskuetan utzi zela erabakitzea ZER irakatsi eta NOLA. Baina baita egia da ere egungo egunean, nola-halako mailara iritsi diren zibilizazioetan, ez dagoela maisuen eskuetan ZER irakatsi behar den eracakitzeari (hori «goitik» —Ministeriotik, alegia— etortzen baita programatua). Eta irakasteko erari, NOLA-ri gogokioa, zer eragozten eta mugak eta kondizio ezarri dizkio irakasie taldeari Arrasateko Juntak?

Galdera hauen erantzunak ikas eta jakin ditzagunean —argi eta garbi, gero!— ulertuko dugu behar den bezala Arrasateko ikastolan gertatu den eztabaida «zergatik» gertatu den. Lagunduko ahal diguzu ulertzen zerorrek, galdera horiei argi eta garbi erantzun? Nik izan ditudan berriak eta zuk azaltzen dituzun oinarri-irizirik elkarri lotzen ez da erraz; horrengatik egin dizkizut galdera horiek, lotura aurkitu nahirik. Eusebio Osak berak beste lan batean dioenez «kausa eta ondorioen arteko relazioa analizatzea kontzientzia kritikoaren ezaugarri bat» baita.

Ene lantxo hau irakurtzean us-teko duzu, agian, etapa «postprimariotik» ez naizela atera; baina, benetan esaten dizut, atera nahi nuke.

Agur eta beste bat arte.

IMAZ

EUSKAL GAIETAN BARNA

BA ZEN GARAIA!

Ez, ez zaitez harri, irakurle, titulu hori dela-ta. Ez pentsa gauza handirik denik. Zera da: «Euskal Literatura» izeneko liburua irakurri dut berriki. Eta aipamento bat egitera nihoakizu, nahiz eta, nola liburu honen aipamena duela zenbait aste eginga den, norbaitek berankor eta aspergarri edo pelmagarri deitu. Halaz ere egingo dut, liburu honek alde on eta txarrak baititu, nere iduriko. Egin dezadan bi alde horien aipamena, dena laudorio izan ez dadin.

Alde batetik, liburu hau gazte-txoei zuzendua da, zazpigarren orrialdeko oharrean esaten zaigunez. Alde honetatik, poliki egina derizkiot. Areago noa. Liburu honetatik (eta jarraituko zaizkionetatik) probetxo franko aterako dutenak, gure herriko lau hegaletan euskara ikasten ari direnak dira. Hots, euskaldun berriak. Bazen garaia horrelako liburu bat argitaratzeko, gure euskaldun berriek ez-paitute normalki euskara errazean prestatueiko libururik, euskaraz irakurtzen hasteko moduan. Uda-ikastaroetan, ikastaroetatik ateratzen zirenei liburu-zerrenda bat ematen salatu gara, non aurkituko zuten irakurgai franko euskaraz irakurtzen hasteko. Baina, egia esan, ez dugu orain arte irakurgai errazik kasik aurkitu. ETOR-ek, bere «Kimu» sail berrian eskaintzen digu orain; jeneralki, bere egitekoa ongi bete duela uste dut, egileen erudizio batzu kenduz gero.

Bestaldetik, zenbait errata arkitu dut liburu honetan. Errata baino hanka sartze esango nuke. Hauetarik batzu aipatuko ditut: Bernat Etxeparearen bertso batean:

Miserikordiaz bethe ziren andere handia,
Enazazula, othoi, irantz ez menos-prezia.
Zuk gibela badidazu, elas, Ama eztia,
Ordu hartan diakusazut galdu neure buruya.

Eta bertso honen azpian adierazpen bat emanaz: «diakusazut ikusten nauzu». Hori astakeria deritzat, garbi baitago «diakusazut» hori «dakusat» dela, alegia «Ordu hartan ikusten ari naiz galdu neure buruya», Ipar aldeko euskalkien «zu» hori tarteko dela (ekarri ditut (dizüt) = ekarri dut).

76gn orrialdean hau esaten da, P. Argaignarats idazleaz mintzatean: «Apaiz. Ziburuko predikalaria, bi euskal liburuen egilea dugu». Enekiak nik gure literatura horren eskasa zenik. Garbi dago «bi euskal liburu» egilea» esan behar duela.

Beste hanka sartze bat olerki zahar bat, Juan Elizalderen, aipatzen dutenean:

Gari lindo hau saltzeagatik
Dabilla karriketan,
Eta eros drakogun gatik

Pregonatzen du onlatan.

Eta aspiko adierazpenean: «drakogun, gatik, dezagun». «Gatik» bat soberan edo faltan dago. Eta «drakogun» hori, nere ustez, «deraukogun» da; beraz, ez «dezagun» (ez eta «dieziagun»), «diogun» baizik; badakigunez, aginduzko adizkera.

Liburu argitara baino lehen, hutsune hauek zuzen zitezkeela uste dut; edo, gutienez, erraten zerrenda zekarkigukeen orri bat erantsi. Dena dela, liburu oso ona, egokia. Zorion ETOR-ekoei eta segi aintzina.

G. Knörr

zeruko ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitzaz)	7 pezeta



BERRIAK

Abenduaren 3an, aste honetako igande hain zuzen, Xabierreko Frantzisko sanduaren egunean, alegia, Gipuzkoako kristau gazteriaren biltzar bat eratzeke da Arantzazun.

Honako biltzar hau bi sailetan banatua izanen da, batik bat: Kristau hausnarketa eta otoitza alde batetik, eta gaur eguneko gazteriari dagokion problematikaz kristau azterketa bestetik.

Biltzar hau dela eta, Jazinto Argaia Gotzain jauna eta laguntzaile duen Jose María Setiñ, izendatu berria, Arantzazun bertan izanen dira.

Egun berean, hilaren 3an, alegia, eratzeke da Zarauzko Zinema pelotalekuan Sokafira Txapelketa. Jendeak erruz erantzun du eta bi saio behar izan da antolatu: goizeko 11,30etan. bata, eta arratsaldeko 4,30etan. bestea.

Hamalau taldek bere izena eman du txapelketa honetan parte hartzeke asmotan. Arabako bat: Laudio "Zortzirak Bat". Zazpi Gipuzkoakoak: Agnaga, Eskoriatza, Hernani, Motriku, Urnieta, Urretxua eta Zarautz. Bizkaikoak, aldiz, sei: Arangoiti, Dima, Erandio, Laukiniz, Markina eta Mendexa-Lekeiti.

Talde bakoitzak 720 kilo pisatu beharko du gehienez, parte hartuko badu behintzat. Lehenengo saria 17.000,— pta. hainakoa izanen da.

Gabonak gainean ditugula eta, Legazpiako La Salle Eskola Elkarteak eraturik prestatu berri da idazlehiaketa bat. Idazlanok euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izanen dira —eskola mailan— zenbait taldetan banaturik, nor bere adinaren arauera.

Honako lehiaketa hau Abenduaren 3an. eratzeke da Legazpien bertan, eta legazpiarrek ezezik, Zumarraga eta Urretxuako eskoletakoek ere parte hartu ahal izanen dute.

Hernaniko "Fundación Juan Oñano" delakoak eraturik, prestatu berri da euskarazko literatura lehiaketa bat. Honako lehiaketa hau haurrentzat moldatua da, Hernani eta Gipuzkoari buruzko gaiez.

Debako Arte Lantokiak gau eskola batzuk muntatu berri ditu, irudigintza, musika, grabatu eta etnologia ikasaldi hauek jende nagusientzat moldatuak dira, batik bat.

Hilaren 8an. Bilbaoko Coliseo Albia delakoan jaialdi bat eratuko da, sasoi honetan urtero ohi denez. Aurten Donostiako Easo kanta taldeak eta Lexonako San Juan izenekoak parte hartuko dute, bai eta Polentzi Gezala txistulari ospetsuak ere, oraintsuan Paristik jaialdi honetarako propio etorria.

Polentzi Gezala duela pare bat aste mintzatu zaigu aukeran Basarri jauna, haren maisutasuna aipatu, bai eta irabazi duen hainbat sariren berri emanez ere.

Donostiako easotarrak, bestalde Iñaki Ansorenaren zuzendaritzaren pean arituko dira, oraintsu arte zuzendari izan den Bastida maisuak utzi egin bait dio zeregin horri.

Abenduaren 8, 9 eta 10ean. eratu ke de Lexonan II Negu Dema Sariketa. Honako sariketa hau Lexona bertako Udalak eratu du, lehen saria 12.000,— pta. hainako izanen delarik, eta 60.000,— inguru gainontzekorentzat, hamarren bat saritan banaturik.

Dema probak arratsalde eta gauz —5etan. eta 10etan.— eratu ke dira ostiral eta larunbatean. Hilaren 10ean, hau da igandean, goiz eta arratsalde, ordea.

Abenduaren 31an, goizeko 11,30etan, IV Abrako Jaialdia deritzan euskal kanta sariketa eratu ke da Portugaleten. Eibarren —Euskal Herriko beste zenbait tokitan bezala— eratzeke da Gabon aurretik "Olentzaro" delakoa. Laurogeitaka kantari ateratzeko omen da, betiko David Arriolaren zuzendaritzaren pean.

"Santomasak" direla eta, I Bertako Artisten Erakusketak eratzeke da Arrasaten. Honako erakusketak hau "Danok" Euskal kultura Batzordeak eratu izanen da, pintura eta irudigintzari dagokielarik.

Erakusketak honetan edozein mondrautarrek parte har dezake, nahi haina obrekin gainera. Lanok hilaren 15a. baina lehenago beharko dituzte bidali, eta harako erakusketak, berri, Arrasateko Udalaren geletan muntatuko da, hilaren 21-etik. 27 arte.

Erakusketak honetan bertan, "Arrasate" Espeologia taldeak bere azterketen ondorio zenbait aurkeztuko ditu.

MARKINAN

Abenduaren 9an. eratzeke da Markinan Baserritarren Eguna. Eguna hau dela eta, inguruko makinatxo bat baserritar bilduko da Markinan, bere soro eta lurretako emaitzak erakutsi gurarik.

Ohi denez, erakusketak bat muntatuko da Markinako pelotalekuan —Pelota Jokoaren Unibertsitatean—, eta zenbait sari emanen zaie sortarik onenak azalduko dituztenei. Erakus-sariketa honetan parte hartu ahal izateko, erakusle bakoitzak gutienik lau motatako emaitzak —berdura, fruta nahiz hegazti— beharko ditu aurkeztu.


Erakusketak goizetik izanen da. Epaia ematea, berri, ordu biak inguruan, eta ondoren, arratsaldean beraz, salerosketa gertatuko da. Ez da ba ezer eros ahal izanen epaia jakin aurretik.

Horrez gainera, beste sariketa bat ere prestatua da, aurrez aipatu dugun lehena baino garrantzitsuagoa gainera. Izan ere, daitekeena da, norbaitek egundainoko sortarik bikainen ageraraztea, baina bat batetan lortu, urte edo bolara suertesuren baten ondorioz, behar bada hartaz batere —edo guti-ahaleginik egin gabe.

Bigarren sariketa honetan, beraz, sortarik onenak ezezik baserritar bakoitzaren prestaera, jakintza, ezagupena eta gaitasuna kontutan hartuko da, maila orokor bati begiratu. Zenbat sail duen, nola zainduak dauden. Sail bakoitzeko errentabilitatea. Lurrik ikertzen duen, zimaurrek erabiltzen duen, aukerakoak diren etab. Honetarako, hilaren 9aren. aurretik, epai mahaikoak erakusle guztien baserri, soro eta baratx ikusiko dituzte, erabakia ahalik eta zuzenen eman ahal izateko.

Markinako eskualde guztia lurraren emaitzatik bizi da gehien bat, eta bidezko eta txalogarri deritzeau era honetako erakusketak. Gu ere bertan izanen gara hilaren 9an. Ikusle soil bezala, noski, etxeko petotan ditugun lili ziztrin eta erdi igartuak ez ditugu behintzat aurkeztuko!

BOLARIAK Azaroaren 19an. egun ederra ospatu zuten Deba bailarako bolariak, Soraluzen (Plazentzian) bildu bait ziren zenbait bolari zaharri omenaldi bat eskaintzeko asmotan.



Lehenik, hamabiak inguruan biltzar bat eratu zen, Gipuzkoako Bolari Elkarteke lehendakari den Jose Salaberria jaunaren zuzendaritzaren pean. Gero, ordu bitan bazkaria, eta ondorenetan sariak eta oroigarriak eman zitzaizkien honako sei bolari ezagunei, hots: Jose Mari Zubikar (Antzuola), Juan Angel Arizaga eta Pedro Zarraonandia (Ansola Berri Bolatokia - Eibar). Jose Luis Diaz (Centro Montañés - Eibar), Dionisio Iztueta (Sagar Erreka - Soraluze) eta Juan Etxezarreta (Iribar - Soraluze).

Arratsaldean, Solagueneko bolatokia zenbait jokaldi eratu zen iluntzerarte. Eguna ederra ba gure bolariak Plazentzian iragan zutena, eta ezin hobea, bestalde, bertan ikus ahal izan genduen giroa. Zorionak seirot.

ANGOSTO

Hilaren 23an. Arabako Angoston omenaldi bat eskaini zitzaion Valentín anaiari, Angoston bertan berrogeita hamar urte daramazkiela eta.

Valentín Gerrikabeitia Muniozgueren, Arbazegin jaio zen 1897 urtean, eta pasiotar sartu 1914ean. Sei urtetan Galizian egon zen, Bilbaon urtebete eta Gipuzkoako Gabirian beste bat. Geroztik, berrogeita hamar urtetan izan da Angosto Ama Birjinaren berri emale Euskal Herrian zehar, bai eta Angostoko konbentuko atezain ere.

Txikitatik ezagutzen dugu guk Valentín. Noizik behin etorri ohi zen gure etxera, Eibarrera etortzen zen bakoitzean, segurutik. Gizon trinkoa gorputzez, apala eta goxoa hitzetan. Beti zuen zerbitz esateko, antzinako ipuinen bat, Angostoko berriak etab. Gure amak prestatzen zizkien sukalkieci oheora egiten ondotox zekien eta, makinatxo bat alditan eman zion hasiera gure etxeko bazkal orduari.

Valentínek sortu zuen Eibarko zenbait hauzo eta etxetan Angostoko Ama Birjinaren debozioa. Aspalditxoan ez dugu ikus ahal izan gure Valentín, bai ordea, berak hedatu zituen Angosto Amaren irudiak etxerik etxe.

IZTUETA

Mahai gainean dugu historia txikiaren baten jabe den liburuxka berde bat: Juan Ignacio de Iztueta deritza eta Xabier Aranburu kazetari on bezain ezagunak moldatua da, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren arduraren pean argitara emana.

Historia txikiaren bat duela esan dugu, eta hau esatean ez gara gaiaz mintzatu, liburua bera sortu zenetik eraman duen bizitza eskutuari buruz baizik. Izan ere, liburu hau Maiztaren 7an. Zaldibian eratu zen Dantzari Txikien Egunean zabaldu zen han bildu ginen artean. Harako egunaren nahiz liburuen beraren berri sail beronetan eman genduen Maiztaren 21ean.


Geroztik, bost hilaletako isilunearen ondoren, horra non beragertu zaigun, liburu argitara berriei egin ohi zaien harrearekin. Zenbait aipamen egin zaio oraintsuan euskal nahiz erdal publikazioetan. Zer dela eta orain? Batek daki! Dena den, giroari atxikiz edo, badaezpada ere eta "gutiago" ez izatearren, ez genduke nahi sail honetan aipatzeko utzi.

Liburu honen bitartez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak omenaldi bat egin nahi izan dio Iztueta dantzari eta folklorolari, bai eta honen berri gure gaztetxoei eman ere, euskal dantzarekiko zaletasuna gal ez dezaten.

Iztuetak ondo merezia du bestalde, gaztetxorentzat bereziki argitara emandako liburutto hau. Izan ere, Iztueta bait da gaur egun ezagutzen den Europako lehen folklorolaria. Honetaz, Xabier Aranburuk jakinarazten digunez, betidanik pentsatu izan omen da Suetzia zela folkloreak lehenik arduratu zen nazioa, 1880 urtean argitaraturiko liburu bat bait dute. Baina, hara non, 1963 urtean Alemanian eratu zen. Nazioarteko Folklore Astean", Donostiako "Goizaldi" Dantza Taldeak 1824 urtean agerturiko liburu bat erakutsi zuen, hots: Iztuetaren GIPUZKOAKO DANTZA GOGOANGARRIAK. Beraz, besterik agertzen ez den artean, euskaldunok gara —Iztuetari esker— European folkloreak lehen arduratu ginenak.

Iztuetak badu, horrez gainera, beste zenbait obra, famatuena GIPUZKOAKO PROBINTZIAREN KONDAIRA EDO HISTORIA izenekoak, segurutik, 1847 urtean Donostian inprimatu zena. Irakurleak ikus ahal izanen du aipamen honi atxikirik harako edizioaren lehen azala.

Baina, Xabier Aranbururen lanari zuzenki dagokionez, diogun lantxo poliki moldatua dela, euskaraz eta gaztelaniaz,



eraz eta moldez gazteei dagokien mailan. Zenbait oker edo huts badu, baina denera ere, zirritada batez konpontzeko hainakoak.

Ez nuke nahi azkenik, liburuxka hau nola eskura ahal izan nuen Zaldibian aipatu gabe amaitu. Dantziaren artean zenbait liburuxka banatzen ari zirela oharturik, bertan zen Iñaki Beobideri ale bat eskatzea pentsatu nuen. Hurreratu nintzen, eta nereki zer esan behar nion ondo pentsatuz gero —zeren giputzez hitzegiteko pentsatu behar izaten dugu (horela gabiltza gero asmatu ezinik)— esan nion:

—Hi, Iñaki, jiratuko ahal didak hoitariko aletxoren bat?
—Jira... zer? —erantzun zidan irribarrezka, giputzes nagusietasun maltzurraz.

—Ba... jiratu... zera, lortu!

Sarri esan ohi dugunez, hiztegia dugu bai batasunaren otoporik handienetarikoa. Bedi anekdotatxo hau beste askoren oroigarri, eta hiztegi batuak duen garrantziaren frogagarri.

DENETARIK

Martin Ugalde andoindarra Euskal Herriko Historiaren Laburpen Periodistiko izeneko lana prestatzen ari omen da, eta aurki argitaratzeko asmotan gainera.

Martin Ugalde burruka gizona dugu, nahiz eta kostata —amaika oztipo gaindituz— bizitzaren zehar beti aurrera jo duen gizona. Chicagoko Northwestern Unibertsitatean periodista egina, eta Caracasen bizi zela lehen mailako idazle eta artikulugile.

Euskal Herriko periodistikaz ere azterketa baten beharrea gaude. Nor aukerakorik Martin Ugalde bera baino?

Duela astebeite esan geudenez, azaroaren 19an. Zaldibian eratu zen Gerediagarren VIII Merindade Eguna eta Biltzar Nagusia. Biltzar hartan ohorezko lehendakari izendatua izan zen Valentín Lasuen jaun zaldibartarra, azken bost urtetan Gerediaga Elkarteke zuzendari izan dena.

Zenbait arazoz ihardun zen, hots, Eskualdeko Ekonomia eta Sozial Azterketari buruz, Astola Etxeko Museoaz, Durango Eskualdeko mapa toponimoko batez eta beste hainbestez. Azkenik, IX Merindades Eguna Arrazolan eratu ke dela hurrengoan erabaki zen, aldi bakoitzean eskualdeko toki desberdinetan egin, oraingoz ohitura denez.

Gasteizen eratu izan da Arabako euskal etxetako argazki erakusketak bat. Guztiz ehunen bat argazki osatzen du erakusketak hau, denetariko etxeak azaltzen direlarik, Ayala eta Aramaio aldekoak, bai eta Errioxa eta Valdegobia lurraldekoak ere.

Honako ehun argazkitako sorta hau, beste sorta handiago baten hasiera baino ez omen da, azkenen batetan Arabako Etnografia Museora pasatuko dena.

Hain zuzen, etnografia azterketetan hasiak dira Gasteizen "Manuel Iradier" elkartekoak, Jose Migel Barandiaran maisuaren ikasaldiei jarraituz.

Bergarako San Pedro Ariznoako deritzan parrokiaren bataiatu berri diren haurren artean, Zigor, Aitor eta Aitziber izenak ditugu. Beste euskal izenik ere bada, noski, baina hauk dirateke erdarazko itzulpenik gabeko bakarrak.

Debako "Ermittia" leize-zuloa lehertu egin da. Goi-sapaia behera etorri da batpatean. Behera etortze hau autopista delakoren obren gatik gertatu omen da.

Ermittia, Euskal Herriko leize-zulo ezagunetarikoa genduen, Gaxtarria, Isturitz, Olha, Aizpitarte, Ekain, Urriaga, Lezetxiki, Boliinkoban, Axlor, Lumentxa, Abittagan, Santimamiñe, Atxeta, Altxerri eta beste zenbaiten artean, lehen euskal gizonaren aztarrenetan kontutan hartzekoa.

Ermittian Goien Paleolitos Haroko (Kristo baino 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arteraino) hondakinak aurkitu izan dira: Ibizatoko tresnak eta sasoi hartako animalien hezurrak, zezen, bisonte, orein, basahuntz, basurde, hartz, otso eta beste hainbatena, alegia.

Inguru honetan bizi izan zen Cro-Magnon izeneko lehen gizona, Homo Sapiens Sapiens delakoa, Neanderthal arrazaren ondoren agertua. Jose Migel Barandiaranek esaten digunez, Cro-Magnon delakoa hedatua zegoen Euskal Herrian, Itziarreko Urriagan haren gisako hezurrak aurkitu bait ditu berorrek. Urriagan bizi izan zen lehen euskalduna ez zen, noski, Ermittiatik urrutu ibiliko.

AZKEN BERRIAZ

Aste honetako orrialdea amaitu ondoren, beste zenbait berri jakin ahal izan dugu. Aipamenen bat edo beste kendu, eta bi-hozkizua irakurle harako berriak, ahalik eta laburren.

Abenduaren 3an. eratzeke da Iruñean II Dantzari Eguna. Honako egun honek Nafarroako dantzariaren eguna izan nahi du. Batz beste zortzi dantza talde ezagun omen dago Nafarroan, eta zortziek hartuko omen dute parte, hots, Tuter, Tafalla, Estella, Arizkun, Anaitasuna, Iruña, Oberena eta Iruñeko Udalaren dantza taldeak.

Honako egun hau Oberena Elkarteak eratu ke du, Nafarroan barrena euskal dantza zaletasuna eragin gurarik, eta bertako taldeen artean elkarriketa eta ezagupide bat lortu nahian.

Euskaltzaindiak Donostian eta Bilbaon eratu dituen irakasle mailako esamenen ondoren, agindu bezala beste hiru-garren esamina bat eratu ke da Eibarren, Abenduaren 30ean.

Harako esamina Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren geletan eratu ke da, Dos de Mayo, 1 delako zuzenbidean. Esamina, eibartarrentzat ezezik, orotariko euskaldunentzat izanen da.

Tituluak ematea, berri, Elgoibarren izanen da, Urtarrilaren 28an, Urruzunori eginen zaion omenaldiaren barruan.

Ale honetan berean zabalago aipatzen delarik ere, eman dezagun berria. Urola Ibarreko mutil iaio eta langileek hamar egunetako biltzarrak eratu dituzte, Azpeitian, Abenduaren 7tik 17ra. "Carmelo Etxegaray" izeneko batzordea izan da eratzaile eta ez dirudi txantxetako lana egin duenik.

EUSKALTZAINDIA

Diputazioan, Euskaltzaindiko Azaroaren 24ean, Donostiako kargu-berritzeak izan dira. Lau kargu berritu dira. Kargurako jaunak, euskaltzain osoak bakarrik aukera ditzakete. Jaunok aukeratu dira: aita Villasante; Euskaltzaindiko buru; Jean Haritschelhar buruordeko; Juan San Martín idazkari eta Eusebio Erkiaga diruzain. Zorionak guztioi. Lehen bezala jarrai bezate lan eta lan aurrera ere. Guztion laguntzaz euskeraren eta Euskal Herriaren alde lan oparorik egin dezatela opa diegu.

GURE TXOKOTIK Langileria eta beste problema batzuren inguruan

BERRIZ ERE SOZIALISTAK

Azaroan Alemaniak Willy Brandt eta liberalekin elkaturik aurkeztu duen programa ontzat eman du. Sozialistek oraindano egin den lanaren egia eta errealitatea presentatu dute. Baita alemanek baiezkota eman ere. Kristau demokratek ez dute espero zuten hainbat botorik jaso. Hitzak baino egintzak maiteagoak ditu herriak, eta Brandt agintearen gidaritzapean Alemaniak daraman Ostpolitik joera, alemanen arteko tar-tea bigundu nahia begi onez ikusten du. Irakurleak auteskudeen berri badaki. Sozialistak azken auteskudetan gorantz dihoazkigu.

Marxek proposatutako sozialismoa eta alemanek jarraitzen dutena erabat ezberdina dela ere esan beharrezkoa ote da? Noizko gure artean, Ipar-Hego-politik ontzat emateko egokiera?

PERON

Hamazazpi urte atzerrian, desterruan bizi ondoren, Peron Argentinako lehendakaria izandakoa berriro itzuli da. Argentinan poza eta zentzua hauetan kezka ere nagusitu dela esango genuke. Oraindik badu Peronek eta bere «justicialismo» joera jarraitzaileak. Lanuse militarrek urrengo udaberriaren auteskudeak egiteko gogoia erakutsi du. Zer gertatuko ote da? Peronek opizizioko taldeak bildurik fronte indartsu bat osatu nahian dabilela dirudi. Lortuko ahal du? Oraingoz, ez ditu danak bereganatu. Radikalek ez diote erabateko baiezkorik eman. Horregatik diogu, zer gertatuko ote da?

ABERTZALETASUNAREN AURKA

Azkenaldi honetan gogor ekin diote URSSko agintariak zenbait herrialdeen abertzale joeraren aurka. Ukraniarrek, azken hamabost urte hauetan urduri, kezkatu, burukalari dabilzigu. Intelektualek lanik asko egin dute baina agintariak ez dute horrelakorik ontzat eman. Dozenatik gora dira azken aldiaren egindako juizioak, eta bidegabekeriaren berri zabaltea eta jakin eraztea eskatzen dute abertzaleek.

Dirudinez, Ukranian ere txakurrak...

VARSOVIAN SINDIKATOEN BILTZARRA

Azaroaren 13an, bildu berriak dira Varsovia bertako sindikatoak. Ia bi mila ordezkari bildu dira, eta langileria arazorik nagusienak aztertzeari ekin diote. Arazorik nagusienak: ekonomiaren planifikazio-arena eta lantegietan langileek zuzendaritzan eta antolaketan behar duten eskuartzea. Zazpigarren Kongreso honi M. Gierk eman dio hasiera.

FRANTZIA

M. Georges Pompidou Afrikako lurraldetan ibilia dugu. Frantziak bere Afrikako zenbait agintari adiskidetsukin harremanak sendotu nahi ditu. Mila eta zazpirehun milioe franko afrikarrei laguntzeko erabiliak izango omen dira... Pompidouk bere harremanak kultura mailan indartu nahi ditu. Baina ez noski afrikarrei dagokien kultura mailan, frantseseraz eta frantses moldetan egositako kultura loturak nahi ditu frantses agintariak. Egunkerik egunera, afrikarren kontzientzia esnatzen eta suspertzen ari da. Malgaxte ugartetako estudiantiak ez dute frantsera begi bistan ikusi nahi. Guk ere ez dugu Pompidouren ez kultura loturarik eta ez bestelakorik onartzen.

Frantzia ere, eta ez noski Frantzia bakarrik, huelgak ugalduz doaz. Tren konpainietako langileek bere haserrea erakutsi dute. Jurnal arazoa dute gehienbat zuzendu beharrezkoa. Alsaciako Potasas lantegitako mineroak, ipar aldeko itsas ertzean Kaolins de Plmet-koek zortzi aste luzetan egin dutena, funtzionarioen diru eskabideak, eta abar, badago eztabaidarik eta tensiorik.

Dagonekoz, Frantziako auteskudetarako prestea eragin dabilzki-gu. Dagonekoz jendearen pentsakera jasotzearen aldekoak ere zabaldu da. Pompidou eta gaullistek erraz irabaziko dute ezereen aldeko garrantzitsurik gertatzen ez bada. Galdekizunak erakusten duenez % ko 48 egungo agintadunen alde joko du. Ezkertiarrek % ko 31 baino ez dute jasoko.

MIKEL UGALDE

Duela zenbait aste, Mikel Ugaldek idazten zigun langileria buruz. Artikulu hark "Hobetu bai, baina aldatu ez" zeukan titulua. Artikulu hartaz zenbait gogoeta egin nahi nuke.

Goazen harira. Dirudinez, Ugalde sindikato konformistetak ari zaigu. "Langile askok osatzen du mota honetako sindikato konformista..."; Ugaldek sindikato hauen zenbait ezagugarri ematen digu, ber joera edo joerak aztertuz. Baina azterketa, ene iduriko, oso jenerala, orokorra da, eta kasu de-tetan azterketa hori ontzat emana izan ez daitekeelakoan nago. Sindikato-eredu hori oso zabaldua dago bai inglaterra, bai Frantzia bai beste erresuma anitzetan ere. Baina sindikato baten joera ez da mundutik at dagoen gauza bat, erresuma baten kondizionamenduei zeharo atxikia dagon zerbait baik. Orduan, beste erresuma askori gagozkiorik, baliteke tronpatzea, sindikato bat edo beste eredu edo modelo honetan besterik gabe sartzea, azalezko ezagugarrietan gelditzen bagara. Ez dut uste hau Mikel Ugalderen asmoa denik, baina gauza hauek esaten baldin badituz, sarri aski gertatzen den planteamendua delako da. Mikel Ugalderen baimenez, banihoakizue honetaz zenbait ohar egitera.

Azalezko ezagugarrietan gelditzen bagara, ikusiko genuke huelga edo greba egiten ez duen sindikato bat, eta segitun esango genuke sindikato hori erreformista dela. Hau aztertzeke ez Zeruko Rgia bat, baina mila beharko genuke. Baina gauza bat (zeharo zabalduz dagoen gauza bat) salatu beharra da. "Huelgaren mistifikazioa", alegia.

Sarri aski aditu ahal izan dugu bazterretan "huelga BEREZ ontzat ematekoa da". Honelako mitokeriak oso zabalduak daude eta aipatu dugun zera hori esatea astakeria haundi bat da. Hori huelga mitifikazioa da, metafisika egitea da, huelga hori "berrez" ontzat emanik langileen mugimendua, borroka, errealidatetik at ezartzea da. Eta gero gerokoak, naski, honelako planteamenduetan finkatzen diren sindikatoak direla-ta, funtsean langileekin zer ikusirik ez duten planteamendua baitira.

Erresuma bateko langileria jokatibideak erresuma horretako kondizionamenduei zeharo atxikia egon behar du, naski, ongi taiutua, epe motz eta luzeko expektatibei begira. Langileak, edo gizonak, berdin zait, mundua aldatzen du ed alda dezake, neurri batean, neurri hori momento historiko baten kondizionamenduei ematen diotelarik.

Beraz, baditeke gaur hobetu, baina bihar edo etzi (esaterako) aldatu. Perspektiba honetan ballatzen ez badira, uste baino ondorio txarragoak ekar ditzakete. Hau, aspaldi hontako zenbait huelga famaturen balantzea eginaz, garbi agertzen zaigun gauza bat da.

Beste ohar bat. Inperialismoan bizi diren nazioetan, arestian aipaturiko ondorioak askoz okerragoak gertatzen dira. Despiste-kontexto batean murgilduta, langileria ez darama normalki berari zegokiokeen jokabidea. Are gutiago bizi garen kondizioetan, erresuma guztiak debelopari begira diren garai hontan. Inperialismo egoera hori dela-ta, zenbait joera inperialista agertzen dira nazio azpiratuetan, azalez internazionalista eta



iraultzaile eta funtsean erreazionario eta erresuma azpiratutako langileen interesen kontrakoak oso. Erresuma horietan, naski, huelgaren mitifikazio hori onartzen ez duen sindikatoren bat agertzen baldin bada, sindikato hori erreformista izanen omen da. Zergatik? Inperialismoari zintzo-zintzo atxikirik, sindikato "iraultzaile" horiek bere joera huelgaren mitifikazio horretan finkatzen dutelakotz, bere joera, internazionalismo huts baten izenez, nahaspilo-sortze batean sustraitzen delakotz. Internazionalismoaren izenez edo begien aurrean omen dugun dinamika (?) baten izenez.

Joera beran, mito huts batean finkatua delarik, zeharo mitifikatua dago. Eta hau da, ene iduriko, behin betirako desmistifikatu beharko gendukeena.

Eta bukatzeko, beste ohar bat. "Gure txokotik" izeneko arloan poliki ari zaigu Ugalde. Azken alean, joan den astean, "Kapitalismo" izeneko ohar txoan, zera esaten zuten: "Vietnamgo gerla dela-ta, hamar firmarik nagusienek bost urtetan ia HAMABI MILA MILLOE DOLAR balio duten pedidoak jaso dituzte azken bost urteetan. Gerla bukatuz gero, zer gertatuko ote da?"

Galderari oso interesgarria dertizat. Zein izanen da jende simpleen, bazterretan dabilizan "intelektualen" erantzuna? Ba, Vietnamgo gerla bukatzen baldin bada, U.S.A. akabo (beste gerlaren bat amaten ez baldinbadu nonbait).


Ni ez naiz profeta, ez eta ekonomilari, zenbait aintzin-ezagutza edo prebisio asmatzeko, bainan badakit ezen U.S.A.-k beste gerlaren bat asmatzen ez badu ere, beste irtenbide anitz asma ditzakeela. Izan ere —mendebaldeko erresumek daukatena baino askozaz inportanteagoa—, U.S.A.-k badu gauza bat, teknologia alegia. Eta kañoi, tanke, eta nik dakita zer gehiago egiten dituzten makiñekin, beste gauza anitz ere egin ditzakeela. Beste xiribistaren bati eman, edo makiña herberari itzuli osoa eman eta lehengo zuloñik kañoi, tanke eta abar ateratzen baziren, oraingo hontatik ilargirako kohele edo batek daki zer!

Beraz, "Vietnamgo gerla bukatzen baldin bada, U.S.A. akabo" esaera simple hori, zalantzatan hartzeko lizateke. Eta gainera, kapitalismoak —zenbait aldiz piztu-berri kapitalismo bedeinkatu hori—, batek daki zer asma dezakeen.

G. Knörr

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietan, 66

DONOSTIA

ASTE OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2
Urrutizkiña: 425700

DONOSTIA

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'gn



DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 16 - 32 37 01
Gordeliz, 44

BILBAO

LIBURUAK

MUNIBE 1972

Azkeneko bi urteotan, Peninsulan egin den lanik onena

Aranzadi Elkartekoek duela guti hartu dugu, berak argitaratzen duen MUNIBE aldizkariaren azken alea. Bostehun orrialdeko alea gaia bati lotua. Izen-buruak garbi adierazten digu gaia: «FAUNA DE MAMIFEROS DE LOS YACIMIENTOS PREHISTORICOS DE GUPUZCOA». Egilea, Jesus Altuna, Paleontologia.

Esan ohi da sarritan euskaldunon artean argitaratzen diren liburuetaz kritika giti egiten dela, txalo gehiegi jotzen. Ez dut ezezik esanen, bainan hemen aurkezten dutan liburu honen kritikarik egiteko gai denik ba ote den badut kezkarik asko. Ni ez behintzat.

Hamabi urte luzeetan egindako lana dugu Jesus Altunak eskaintzen digun hau; hamabi urte, ez gaude hortara jarriak.

Lan hau egiteko ez da bere kolokan bildu, Europa zabalekoekin har-eman herstuak ditu; azken aldean agertzen dizkigun berak erabilitako liburuak lekuko, bostehun inguru eta Europa guzikoak.

AGERKETA

Alea oso egokia iruditu zait, Munibek ohi duen tipografia ta neurrietan.

Liburuaren bukaeran 28 orrialde eder dituztu, hezur garrantzitsuen argazkiekin. Honelako liburuak 200 peztan hartzen ez gaude ohituak.

GAIA

Aurkezpen hau egiteko MUNIBE bertan datorren Laburpena bere hartan jalkitzea deritzait egokiena.

«Lan honetan Gipuzkoako lehen-gizonen aztarnategietan, harpeetan alegia, azaldutako ugazdun-abereak aztertu ditut. Gipuzkoa alde bate-tik gaia honetan bere inguruko lurraldeak baino gutiago aztertua zegoen, bestetik azken izoztean (Würm izoztean) Frantziako SW-tik Iber-Peninsula bide zijoazen gizon eta abereen nahitazko bidea zen. Beste arrazoen artean bi hauek nahiko dira bere garrantziaz jabetzeko».

«Aztertutako hezurak alde bate-tik Aranzadi-tar T. eta Barandiaran J.M.-ek 1924-tik 1936 arte Ermittia ta Urtiagan aurkitutakoak dira (5.295 zati). Bestetik Barandiaran berak eta biok 1958-tik 1968 arte Aitzbitarte, Lezetxiki, ta Marizulon aurkitu ditugunak (8.928 zati)».

«LANAREN LEHENEN ZATIAN Gipuzkoan egin diren azterketa guz-ien berri ematen dut...».

Azterketa hauen gorabeherak adieraziaz, sorrera, guda garaia, Aranzadi Elkartearen sorrera eta gaurko egoera.

«BIGARREN ZATIAN GIPUZKOA Geografia aldetik aztertzen dut, batez ere Hidrografia eta Orografia aldetik. Lurralde tikiak izanik aldaketa sakonak ditu bere barrenean. Europako zenbait lurraldeetan bide luzeak igaro beharko lirake honelako aldaketak aurkitzeko. Azken izoztean, Würm aldian, itsasoak eta betiereko elurak kilometro batzuk bakarrik zituzten tartean; Aralar eta Aizkorriko gailurretan betiereko elurak bai bait ziren».

Gipuzkoako mendi-kate ta ibaiak zeintzuk diren, nun sortuak, nundik igarotzen diren, bere neurri tab, ezagutu nahi duanarentzat egoki. Hemengo egurastia —klima—, landare eta ihizien berri ere badugu hor.

«HIRUGARREN ZATIAN Gipuzkoa inguruko herrialdeetan azaldutako ugazdun guzien berri katalogo eran ematen dut. Herrialde hauetan Euskalerri guzira eta Santander ta Asturias sartzen dira. Azken bi hauek Ekologia eta Egurasti aldetik Kantauriko Euskalerrikin batasun batean aurkitzen bait dira».

Katalogo honetan ihizi hezurak agertu diren harzulo guzietan ditugu. Bakoitza nun dagoen, nork aurkitu ta aztertu zuen eta zein ihizi-hezur agertu den adieraziaz.

«LAUGARREN ZATIAN Gipuzkoan aztertu ditugun lehen-gizonen aztarnategiak banan banan zehazki azaltzen ditut: nun dauden, ze gogolantze edo kultura maila azaltzen diren, sedimentologia ta C¹⁴ agiriak azalduak eta ugazdunen orokor azterketa eginaz. Aztertutako tokiak hauek dira: Mondragoiko Lezetxiki, Errenderiako Aitzbitarte, Debako Urtiaga ta Ermitia eta Urnieta Marizulo».

«BOSTGARREN ZATIAN, zabale-ena, aztarnategi hoietan azaldu diren 59 mueten azterketa egiten dut. Mueta bakoitza aztertzean zera da egiten dena: aurkitutako hezur guzien berri eman, zein aztarnategi eta berrietako zein mailatan azaldu diren, neurtu ahal diren hezurren neurriak agertu eta azkenik oharketa batzuk egin, hauetan beste azterzaileak argitaratutakoekin berdinkuntza eginaz».

Paleontologia aldetik hemen datza liburuaren muina eta bertan Jesus-en urte hauetako lana. Goi-mailakoa dugu eta gizon bereiztu edo espezialistentzat edo hauen arterako baliotsua.

«SEIGARREN ZATIAN Paleontologia, Kronologia, Egurastia, Ekologia eta Arkeologiari buruz ondoren batzuetara heltzen naiz».

«Paleontologia aldetik, lehenik aipagarriena, oraindik Iber-Peninsulan azaldu ez ziren ihizi muetak aurkitzea izan da. Aurkitutako beste zenbait hezurak ihizimuta batzuk uste baino denbora gehiagoan iraun zutela erakusten digute...».

Egurasti, Kronologia ta Ekologia aldetik kontuan izan dituzte zein giro-tako ihiziak diren, otzekoak ala berokoak, nun bizi ohi diren, noiz agertzen diren eta ze ugaritasunarekin, tab.

«Arkeologia aldetik, alderdi hauek aztertu ditut baitipat:

1.—Lehengizonen aztarnategietan azaldutako abere erak eta bere ugaritasunaren gorabeherak (etxeko abere, gizonak ehizetutakoak, ehizetu gabeko aragijale ta gautxori arrapalarien jan ondarretatik bildutako ugazdun-tikiak).

2.—Nahita ta nahiezta hautsitako hezurak eta nahita hautsitakoak zein eratan hautsiak dauden.

3.—Aztarnategietan aurkitutako abere eta haiz-marrazkietan agertzen direnen arteko zerikusia».

ERRAZTASUNA - ZAILTASUNA SAKONTASUNA

Eskuian hartzean ez dugu ahaztu behar zein eratako liburuaren aurrean gauden, goi-mailako liburu baten aurrean alegia. Gai honetan ezer guti dakigunok galdera hau egin genezake, nik ezer ulertuko ote?, nerretzat bai ote?

Berak egiten duen azterketa ulerterik ahal ez badugu ere, bostgarren zatia batez ere, azterketa hortatik ateratako ondorenak, uler ginitzake, bere sakontasun guzian ez bada ere.

Gai honen zaleek, bostgarrenetik ez bada ere, beste guzietatik gauza jakingarri asko aterako dutelakoan nago.

ARRERA ONA

Gehienok jakinen baduzute ere, diodan zerbait agertu den lekuetan izan duen arrera onaz:

—Lan hau izan zen Doctor-tza lortzeko agertu zuen lana eta epai mahaikoek goreneko mailakotzat hartu zuten. (Cum laude).

—Azken bi urteetan Peninsulan egindako azterketa lanik onenatzat jo zuten eta joan den urtean «Ibañez Martin» saria eman.

Europar ere horrelako arrera behintzat izanek dukela uste diagu, Zorionak Jesus eta jarrai aurrera!

MUNIBE. 1972 Sociedad Aranzadi. Museo S. Telmo. Donostia.

Marzelino Aizpurua

Abenduaren 7an ARGIA taldea Galarreta pelotafokian

Bada urte batzuk Urnietan ere, beste herri askotan bezala, ikastola martxan dagoela. Ikastola hau, beste guztiak bezala, gure haur eta gaztetxoek ezketa ahalik eta on, aurrerakoi eta euskaldunena emateko asmoz sortu zen. Badakigu horrelako eginkizun batek zenbat zailtasun dakarren berrekin; ezketa eta irakaskintzarako jardunak dituen zailtasun orokor-rrak batetik, diruaren beharra, le-gepeko egoera, etabar; eta, bestetik, pedagogia egoki, eta herri-erroetan itsatsirik legozken helburuekiko kezka, zailtza eta bide-bilatzeak.

Baldintzapen hauek denak kontuan hartuz eta bere buruari etorkizunerako aterabide onenak bilatu nahiz, Urnieta ikastola hau ere ari da, ba, beste asko bezala, eguneroko jardunean.

Ezin esan liteke egoera oraingo txarra zaionik, bai bertara biltzen den ume pillo aldetik, berdin dauden irakasleen zuhurtasun eta lanerako gogoarengatik, pentsa baigenezake gaurko nahiko ondo dola eta bere bide eta helburuak xuxen betetzen ari dela.

Hala ere, etorkizuna ez da izango erreza; beste problema batzen artean, diruarena hor dago beti bere atzaparrak erakutsiz, eta Urnieta ikastolako batzordetakoek arazo hori ere poliki-poliki konpontzen joan nahi luteke, guraso eta sozio guztien laguntza eta lankidetasunarekin. Horrela erosoago eta askeago lan egiteko lehen oinarrietako bat tinkotuko bailuteke.

Arazo hori dela ta, beste eginkizunen artean aspalditik pentsatua zegoen jaialdi bat aurrera eramateko erabakia hartu da. Jaialdi hau Hernaniko Galarreta pelotafokian izango litzake, abenduaren zazpian, gaueko hamarretan.

Jaialdi horretarako, euskal dantzarien artean onenetakoa den ARGIA taldea biltzea iruditu zaio onena batzorde honi. ARGIA taldea aspalditik ezagutua da Euskal Herrian bere eginkizun zuhur eta bilatzailegatik. Ez da denbora asko «Gipuzkoako dantza, kanta eta soinu zaharrek» deitutako antologia bat prestatu zutela, gure probintziako dantza zaharren artean onenetarikoak hautatuz eta montatuz.

Galarretako jaialdi horretarako, beraz, ARGIA taldea izan da deitua, berek prestatutik daduzkaten dantza eta soinu zaharren erakusketak zabal bat eskeini dezaten.

Programa ikusgarri eta eder bat hautatu da egun hortarako, bi or-

duko emanaldi batean zehar Gipuzkoa eta Nafarroako dantza ederrak publiko ikusleak goza ahal dituzan. Tartean, bai ta ere, trikitrixa han izango da guztien gustagarri, gau hartako giroari dagokionez ingurua alaitzen. Hortarako deitua izan da Laja soinu-jole famatua, bere soinu tikiarekin, panderoa laguntzaile duela.

Programa honela osatua geratuko da:

LEHEN ZATIA

- 1) Gizonezkoek dantzatzeko Gipuzkoako dantza zahar ritualak.
- 2) Konziertoa, aintzinako musika-tresnekin.
- 3) Lizartzako Inauteria.
- 4) Oi Pello Pello!, dantzatzu emango den lan-kanta.

TARTEAN

Trikitrixa; Laja bere sonu tikiarekin, eta panderoa.

BIGARREN ZATIA

- 1) Behe-Nafarroako Inauteria.
- 2) Konziertoa, aintzinako musika-tresnekin.
- 3) Eaurtako dantza.
- 4) Otxagabiako dantza famatuak.

Batez beste jota, denera bi ordu eta laurden inguruko programa. Ikusle bakoitzari esku-programa sarrerarekin batera eskeiniko zaio, horrela jaialdia hobeki segi dezan.

Eguna, tokia eta jaialdia guztiz egokiak diranez gero, Urnieta ikastolak deia egiten die inguru hartako gipuzkoar guztiei abenduaren zazpiko gau hartan Galarreta pelota-fokian bil ditezten, horrela gau eder bat igarotzeko.

Urnietako Ikastolaren

Batzordeak

EGIZU arpide berri bat Urte Berrirako egizu beste arpedun bat

Irakasle titulua

Lehen mailako Irakasle titulua ateratzeko, Bilbaon eta Donostian egin ziren azterketak. Oraingo honetan Eibarren egingo dira. Irakasle titulua atera nahiko duten guztiek, nonahikoak direla, Eibarrera bildu beharko dute.

Examinaok Abenduaren 30ean egingo dira. Larunbatean. Arratsaldeko 4etan. Eibarren dagoen Hiri Aurrezki Kutxaren etxean. Dos de Mayo kalean. Titulua eskura nahiko luketen guztiek eman bezate izena nahiz Bilbaon nahiz Donostian.

Euskaltzaindiak

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BEBBIA DONOSTIAN

URTETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



Urola Ibarreko Biltzarrak

Abenduaren zazpian hasi eta hamazazpian bukatuko dira. Hona hemen egun bakoitzean zer eta non izango diren.

Abenduaren 7an, osteguna Arratsaldeko 8etan.	Euskal arte ete hirigintzaren aurkezmena. Arte sailean, hogeita hamarren bat gipuzkoako artisten margon eta eskultura lanak aurkeztuko dira. Hirigintzaren helburu nagusia, Eibarko Txantxa-Zelai apaintzeko egin diren zenbait proiektu-proposamen azalpentzea izango da. Antxieta Etxean.
9 ^{er} dietan.	Jaialdia: —ERKETZ dantza taldea —Abeslariak —Txalaparta —Trikitixa Izarraitz Pelotalekuan
Abenduaren 8an, ostirala 8tan.	Kalejira
12tan.	Liburu eta Diska <u>Azoka</u> . Herriko Enparantza Nagusian.
12 ^{er} dietan.	Hitzaldia. Hizlaria: Juan San Martin. Gaia «Arte Prehistorian». Antxieta Etxean.
5tan, eta 7 ^{er} dietan.	Zinea: «Ama Lur». Zelaitxo Antzokian.
10tan.	«Anexa» balet taldea. Izarraitz Pelotalekuan.
Abenduaren 9an, larunbata 12tan.	Liburu eta Diska <u>Azoka</u> . Enparantza Nagusian.
4tan.	Debako Arte-eskolaren jardunaldia. Enparantza Nag.
5tan.	Herri-eresi tresna zaharren agerpena. Enparantza.
7tan.	Hirigintza gaitzat hartu eta elkarrizketarako mahai-inguru bat eratuko da. Antxieta Etxean.
9 ^{er} dietan.	Argia Dantza taldea. Izarraitz Pelotalekuan.
Abenduaren 10an, igandea 12tan.	Liburu eta Diska <u>Azoka</u> . Enparantza Nagusian.
7 ^{er} dietan.	Bertsolarien Lehen saioa. Izarraitz Pelotalekuan. Antzerkia. Oiarzungo «Intxixu» taldeak, «Aralar» izeneko antzerkia antzeztuko du. Soreasu Antzokian.
Abenduaren 11an, astelehena 8 ^{er} dietan.	Hitzaldia: Hizlaria: Juan Mari Lekuona. Gaia: «Euskal gogo-joera kondairan zehar». Antxieta Etxean.
Abenduaren 12an, asteartea 7 ^{er} dietan.	Hitzaldia. Hizlaria: Juan Mari Lekuona. Gaia: «Euskal gogo-joera kondairan zehar» (bigarren zatia). Antxieta Etxean.
9tan.	Zinea: «El País Vasco». «Alkezar». «El Pelotari». Soreasu ineman (filma hauen iraupena guztira ordu t'erdikoa izango da).
Abenduaren 13an, asteazkena 7 ^{er} dietan.	Poesia erakusketa. X. Lete eta J.A. Arzaren poemak, Antxieta Etxean.
9tan.	Bi filma jokatu dira. Bata Balerdina eta bestea Sistiagarena (guztira ordu t'erdia). Zelaitxo Zineman.
Abenduaren 14an, osteguna 8 ^{er} dietan.	«Ageri» entzun-ikuskaria. J.L. Isasarena. Izarraitz Pelotalekuan.
Abenduaren 15an, ostirala 7 ^{er} dietan.	Hitzaldia. Hizlaria: J.L. Ansorena. Gaia: «Musika atzo eta gaur». Antxieta Etxean.
9tan.	Bertsolariak. Soreasu Antzokian.
Abenduaren 16an, larunbata 7tan.	Hitzaldia: Hizlaria: Santiago Amon. Gaia: «Egungo Euskal Arte». Antxieta Etxean.
9tan.	Musika konzertoa. Soreasu Antzokian.
Abenduaren 17an, igandea 8tan.	Kalejira.
10tan.	Herri-Meza.
11 ^{er} dietan.	Dantzariak kaleetan. (Zortzi bat dantzari talde). Dantzari taldeen ekinaldi berezia. (Goizean kaleetan ibiliko diren talde berak izango dira). Izarraitz Pelotalekuan. Ondoren: Biltzarren bukaera birl-bilduaz, erromerla.

zine

“FICCION” EDO ALEGIAZKO GAIK ZINEAN

Alegiazko gaiak, oso zentzu zabala du berez. Baina, gaurko lantxo onetan, zineko ikuspegiak baliatuko gara zenbait alderdi; ots, irudimen, kultura fenomeno, amets aurrerakoi, bide berriak urratze eta abar aztertze.

Bestetik, alegiazko gaiak eztabaidatsua izanik, buruhauste eta lan andiak izan dituzte kritikariaek beren idaztiak burutzerakoan.

Ala ere, guk ez ditugu kritika lanak aipatuko. Zineak arlo onetan nola jokatu duen baizik.

Irudimenezko, gezurrezko zenbait historia idatzia zegoen, eta zineak bere teknika (argazki, kamara, otsa...) eta aurrerakoi indarrez, bizitasun nahiz anditasun bat eman zien zeruloidean ezarriaz.

Lehenagoko lanetan esan genduzenez, zinea, teknikazko aurrerapen bezala sortu zen; argazkien igidura lortu zuen asmakizun ikusgarri bezala.

Alegiazko gaiak, bultzada andia eman zion asmakizun onek. Idazti eta irudimenean zeuden burutapenak geure begiz ikusteko aukera eskaini bait zigun zineak. Ots, ilar-gira joan eta bizitza arkitzea, robotak, itsaso barneko gauza arri-garriak eta gezurrezko gertakizun zenbait ikusteko aukera.

Georges Méliés dugu lan orretan aintzindari izandakoa. Ordutik asia bait da zinea alegiazko mito guztiak sortzen, teknikazko aurrerapenak bide direla.

Garai artatik, zinea eta alegiazko gaiak elkar loturik egon dira. Gizonaren irudimena eta goragoko mailara igoaz, ikusizun alai eta bikainak eskaini dizkio zineak jendeari. Baita zenbait amets zine oihaletara azaldu ere, ikusleen berrietasun-mina aseaz.

Méliés dugu, berriro esan, bide urratzailerik nabarmenena arlo onetan. Zine mota au egiten jolastu egin zela ere inoiz irakurri dugu.

Zuzendari onek, tebeo edo komik erako filmak egin ohi zituen. Ihespide edo ebasioko zine soila; funts eta mamirik gabekoa.

Ala ere, irudia bide zela, ikusleekin arremanetan jartzea, eta zituen pentsakizunak irudi bihurtuaz bere jakinduria mundu guzitari erakustea lortu zuen.

Méliés-en lana eztabaidatua izan da; baina, ari esker, gaurko zinegileek badute non ikasia.

Alegiazko lan askoek, bildurra ere berekin izan dutela esan beharra dago. Ikus bestela Fritz Lang-en lanak («Metropolis»-1926, eta «La mujer maldita»-1929) nahiz Protzanov rusoa («Aelita»).

Baina zinea mota au ez zen era bat jendearengan itsatsi, ez zitzaion behar bezalako jaramonik egin, eta gain beheraka asi zen.

Goitik beheraka jarraitu ere 1960, urtean iru zuzendarik indarberritu zuten arte.

Iru gizon auek (Jean Luc Godard «Alphaville», Francois Truffaut «Fahrenheit 451» eta Elio Petri «La décima víctima») beste giro bat sortu zuten gai hau bi zatitan bereiztuaz: «Alegiazko zientzia gizartekoa» eta «Alegiazko zientzia kritikoa». Nahiz eta alegiazko pertsonaia erabili, gaurkotasunari, errealdetari kritika egiten diote.

«Fahrenheit 451» filman agertzen den bonberoa, Truffaut bera dugu; zuzendariaren iritziak agertzen dituen.

Baina bonbero onek sua itzali beharrean (ori egiten dute guk ezagutzen ditugunek) egin egiten du liburua erreaz.

Nortasunik gabeko gizarte bat agertzen digu pelikula onek. Lege bildurgarri batzutan oinarritutako gizarte.

Agintaritzak du beti egia eta arrazo osoa. Liburuek berriz, ideia kaltegarriak sortu arazten dituzte; gizonari gaitz egiten diote. Agintariak ordea, ez daude loak arturik, eta bazterretako liburu guztiak desegiteko berebiziko tresna, antolaketa eta bonbero su-emaiak erabiltzen dituzte, zerbait ikasi nahi duena zapalduaz.

Alegiazko gala da au, noski. Baina gaurko egoerari eta zenbait ar-

zori zuzen zuzenean dagokiona; kritika latza egiten diona.

Ala ere, kritika erakoz gainera, bada arlo onetan beste motakorik ere, eta ezin aipatzeke utziko dugu Stanley Kubrick-en «2001 odisea en el espacio» filma.

Teknika aurrerapen guziaz baliaturik egindako pelikula dugu. «Alegiazko zientzia» da benetan ainbat eztabaida sortutako lan au. Aspergarri eta jasan ezinekoa gertatu zaie batzuei, eta ikusgarria, behar beharrezkoa besteei.

Jerry Lewis-ek ere, egin ditu era onetako film batzuk, gizona eta materiaren arteko guda (farra eragin nahirik behar bada) adi araziaz. Irudimena dela eta ez dela, mito batzuk ere sortu zaizkigu per-

tsionaietan: Flash Gordon, Batman, eta Frankestein esate baterako.

James Bond ere gaur gaurkoko dugu (gizon onetaz lantxo bat pres-tatu beharko dugu urrengo bate-tan) eta mito auek gizartean izan duten eraginak azterketa berezi bat behar duelakoan gaude. Izan ere, salerosketako filmetan agertu zaizkigu gehien bat, eta jendeak onartu egin ditu, itz batez esatekotan.

Eta azkenik, alegiazko gaia obeto ezagutzearren, artikulua laburrak ezezik, liburu mardulak ere irakurri behar direla iruditzen zait.

Dena dela, irakurtzeko baino ikusteko joera andiagoa baldin baduzu, irakurle, or duzu pelikula zerrenda bat:

1902	garren urtean.	El viaje a la luna. Georges Méliés.
1912	»	La conquista del polo. Georges Méliés.
1919	»	El gabinete del doctor Caligari. Robert Wiene.
1920	»	El Golen. Paul Wegener.
1931	»	Doctor Frankestein. James Whale.
1933	»	El hombre invisible. James Whale.
1936	»	Tiempos modernos. Charles Chaplin.
1936	»	Flash Gordon. Frederik Stephani.
1943	»	Batman. Lambert Hillyer.
1950	»	Destino: Luna. Irving Pichel.
1951	»	Ultimatum a la tierra. Robert Wise.
1954	»	20.000 leguas de viaje en submarino. R. Fleischer.
1959	»	Batalla en el espacio. Inoshiro Honda.
1963	»	Teléfono rojo, volamos hacia Moscú. Stanley Kubrick.
1963	»	El profesor chiflado. Jerry Lewis.
1963	»	Los pájaros. Alfred Hitchcock.
1965	»	Alphaville. Jean Luc Godard.
1967	»	Fahrenheit 451. Françoise Truffaut.
1967	»	Je t'aime je t'aime. Alain Resnais.
1967	»	El planeta de los simios. Franklin J. Schaffner.
1968	»	2.001 odisea en el espacio. Stanley Lubrick.
1969	»	Cannibali. Liliana Cavani.

XABIER UNANUE

Haurren idatz-txapelketak

Egun, idaztea arras atsegin zaion zenbait gaztetxo bada gure Herrian zehar; beste batzuei (gehienei) tontokeria iduritzen zaie eta heuren eritzi «atzerakoiak» dira hortan (idazten, alegia) salatzen direnak. Dena den, hel naktion hariari.

Azken bolada hontan —nik esan beharrik ez— haurrol zuzenduriko aunitz idatz-txapelketa eratu da. Ikus ditzagun Nafarroako «Axular» saria, Bidasoako Berako «Pio Baroja» bi sariak, Ordiziako Billafrankan azken bi urte hauetan eratu diren biak, Eibarko «Peli Aldazabal» deritzana, Atan San Martinen aurten lehendabiziko aldiz eratu dena, eta abar... Hoietatik, «Pio Baroja» deritzan bat ez beste guztiak, gaztetxoontzat eraturik daude. Batzu herri-mailan, beste batzu berriz bailara-mailan eta bakar batzu Euskal Herri osokoentzat. Larrantzat ordea, premia gorrian egonik ez da gehiegi antolatzen: hobeto esanda, antolatzen dira, baina gori-mailako jendearentzat soilki balio dute.

Izan ere, «guttienez, ehun folio bete beharko dira» eta antzeko zenbait arau agertzen dira. Baina ez al gara jabetzen herri-xeha osatzen dugunok ez gaudela hortarako hainbat jakintza horniturik? Ni, egia esan, ados nago Mariano Izeta nafar idazle joriak urrialden 29-ko Z. ARGIAN dioen gauza batekin: hots, larriri ere lau ta bost foliotako lanak aurkeztaraziteza nahikoa izan datekela (hori dio gutti gora-behera).

Izan ere, era horretan jende gehiagok hartuko luke parte eta idazle gehiago sortu anian. Idazle onen behar handia nabari da: Herriaren aldaba, Herriaren goiz-ereski edo alborada izan bait daitezke. Gainera, idazten iharduten duenak zenbait gauza ikasi ahal izaten du. Eta Herria pertsona ikasiren behar gorrian dago.

Txapelketa hoiak eratzeko era ez zait hain txarra iduritzen: lantxoak etxetik bidaltzea esan nahi dut; hala egiten bait dira gehienak. Baina frogamen hori soilki kontuan harturik, ez dut uste epai-mahaiak hauzitu behar lukeenik; umeen artean, saria ateratzearren, etxean nahiz kalean lagunduta idatzitako zenbait lantxo bidalko direla uste bait dut. Bada arazo hori zuzenduz ahal izateko, bide hauxe hartuko nuke: hots, etxetik bidaltako lantxoak hartu ondoren, leku izentatu batetan gai ezezagun bat emanik, zerbait idatziaz txapelketariari; eta bi esaminak kontuan harturik hauzitu epailarik.

Horrezaz aparte, gaizki egina iduritzen zaidan beste gauza bat dakusat, eta zera da: lehiaketatan parte hartzen duten lantxoak ez direla inoiz argitaratzen. Ene ustez, lantxo hoiak gaztetxoona ez taxuzkoak ez izanarren, argitara eman behar litzaizkiguke: aldizkaritako orritan edo...

—oOo—


Behin eta berriro diot garrantzi handikoak iduritzen zaizkidala aipaturiko lehiaketa hoiak: idazle berriak sortzeko bide egokia bait da.

Eta gaur, aginduz amaituko dut ene lantxo petral hau. Gaztetxo adiskideoi, zera esanaz: ez alfertzeko; ezta ere «nik ez diat hori egiteko ballo» esanda zapuzteko. Eta eratzaila kementsueri berriz, hauxe esanaz: hots, jende gutti izanarren parte hartzailea, ez etsitzeko, aurrera jarraitzeko baizik. Eskerrik asko.

TRIKUARRIETA

orio

Gipuzkoako eiztari talde bat Soriako lurraldetan. Ezkerretik eskuira: Nikasio Uranga, Alejandro Garate, Abelino Garate, Patxi Aranburu ta Manuel Arruti jaunak. Ikusten denez, denak eiztari onak. Gaiñera leenengoa (Uranga) Orioko arraunlari sonatuetako bat da. Onek ez du esan nai, beti txapeldun irtetzen direnik. Ez. Batzuetan gizonki galtzen ere badakite. Adibidez, joan dan udan. Gaiñera danok dakigun gauza da, igaz, nolako ez bear txarrak zigortu zituan. Beste urte batean arkitu ditezke askoz zimelago eta burrukalariago. Agian, urrengo udako estropadetan beren aurka jokatu nai dutenei auxe esan dakieke: ARG! IBILLI.



deba

JOSEBA SALEGI

Debarroi gizon bat il zaigu Donostin: Salegi Egaña'tar Joseba. Gizon-gizona zan erritar bat, Azaroaren 22-an utzi gaitu. Jaungoikoagana juateko (G.B.).

Bagenek gaxo zala, baiña ez gendun sendatuko zan itxaropenik galtzen. Maite-maite gendun, eta giñon maitasunak ez zigun etzitzen utzitzen; baiña Goikoaren naia burumakur artzekoa da, ta Joseba zanak onela artuko zuan.

Mundu ontan bere elburua Jaungoikoa ta Euskelerrria izan dira, ta ondo dakigu zenbat egin duan elburu eder orren alde.

Len, orain, eta bere garai berezian, Joseba Salegi ezagutu duan guziak itz egingo du nik orain idatzi bezela...

Ez zuan areririk. Zana zala maitatzen zekian kristau on bezela, ta al guzia egiten bere bear zana; ez bere senideai bakarrik, edozeini...

Zer ez nuke bere alde! Zer ez nuke esango bere gizontasuna aldezen!... Deba'n euskel-izenen leen bataiatua zan aurra beran izan zan, orain irurogeta bat urte: Joseba. Batzuentzat erokeria izan zan, bestientzat ausardia, baiñan askorentzat poza. Orrela nai izan zuan bere aitak eta aitak jarri zion izena gizonki eraman du bizi guzian.

Ez Donosti ta Debatik bakarrik, inguruko erri, Euskalerrri guzitik e'au da jendetza bere illetan. Salegi ta Egaña'tar Joseba'ri otoiak batera omen maitetsua egitera. Zerutik lagun bekigu. Aide dedan bere sendiari, nere samin-agurra. —oOo—

Hi berri da baita emen gure Deba'n, Joxepa Etxabe'nekoa. Andre jator eta ona, izatez Itziaroko alaba, baiña urte askoan Deba'n bizi izan dana. Bere, seme alaba ta billobai gure samin-agurrik zintzoena "Zeruko Argia"ren bidez. (G.B.).

TENE MUJKA

aduna

ERRI-TXUKUNKETA

"Zalapartarik gabe, astiro; baina gelditu gabe. Gaur EGOTEA atzeraka egitea ez al da? Ze ederki dion BELKOAINek: Zizurkilgo bidean 10 argi, asko driz-driz, alaitasunean. ADUNAKo bidean beriz, orain 15 urte baziran, indar ekasian; eta orain IBERDUEROKIN... ipurtargiak bide-krisailu! Erritar aunitzen eske eta gogoa da ba auxe, argi aiek berritzea. "Mantenga limpia...". Erri-sarre-

ra lotsagarri dagoela diozu. Eta nun zaude beste akatsak gogorazteko? Urkiolako Eliza eta inguruetan leitzen da: "GARBI GORDE URKIOLA, ZEUREA DA-TA". Ze ederki legokeen antzoko bat ADUNAN ere. Ezin izan erri polit, pampox, txukuntasunik gabe. Aurreko batean zion gure Irakasle andereñoak: "Ze plaza polita! Nik bilduziko nizkieke umeei paper eta zahorrak, baina nora bota?"

Ara beste galde batzuk dagokionari, esamin eta propositua egiteko: Zergatik ez jarri or, arbola-azpitan, Izagirre alboko arri-pilla dirudin orma-exerleku ori kenduta, eta berdin frontoi onduan, aulki-eserleku zuri-gorri eder batzuk? Eta alboetan paper zabor saskiak? Eta Izagirre ondoko ibilbide ori, zergatik ez berdinu, berritu eta orraztu?

Udaletxeko arlandu bikaiñak ere oju-anunzio paperez narrastuta, "VOTE A ESCUDERO", t.a. Zikintzeko eskubidea bai, eta garbitzeko inork ez?

Goazen pillota-lekura. Orain illabete Andoaingo iru neska pelotan; "eskobakin etorri bearko degu urrengoa" zioten. Frontoiak bazuan arestian ur-bide bat eurite egunetarako. Torreko lanetan edo, morteroakin erretena itxita, zingira bat dirudi. Nolaz ez zuzendu okertxo ori, nardaska bat kentzeagatik? Eta, zenbat kostako litzake bada ezker aldeko goi-sareak berriro moldatzea? Begira Lardiko frontoi berriari sare galantakin. Ura gaur aurretik. Ejeplu txalagarri eta jarraigaria. Oraintsu zion batek: "200 peza kosta pelota eta leenengo saioan emen galdu diat". Arrisku ori ez dago erabat kentzerik, baina aalegintzea...

Eta mutikoak frontoi-orma gainean askotan pilota billa. Galde gure Faustino arretatsuari, ze laborriz ikusten dituan, arrixkutan. Batek lepo-ezurra austen duanean, nork erantzungo du? Ez ote pelotaririk Udaletxan? Bai. Alkatetxak esan du noski, kargua uztetarako, frontoi itxia egingo duela. Bejondeizula! A ze omenaldia orduntxe Adunak Ubillostar Ramoni. Ni leenengo naizela, Zorionak, Alkate jauna, eta eutsi itz orri. Asmo txalagarriagorik! Baina, ori noiz? Ez esan beintzat "dirua aurreratzean". Dirua aurreratu zai bageunde eguneroko ogia jateko... ERRI-BERA".

zeanuri

ERRIKO TXISTULARIAK

Orain iru urte asi zirean, gazte talde bat txistua jotzen ikasten, eta olan jarraitzen dute oraindik. Euren irakasle bezela, Arzatzako Jose Felix Zamakona. Ensaioak astero enkiten dabez. Zapatuetan arrastiko zazpi t'erditan, dantza

eta euskerazko ikastaldiaren ostean. Ondikaren jentek esan daien ortik, gazteria ezegaz ez dela arduratuten, eta dirua bakarrik daukela euren ametsa. Orduan, au zer da ba?

ERREGEEN EGUNA

Erregeen eguna be laster dator da, eta, umentzat eta gurasoentzat batez be, badago zeozor egiteko asmoa. Gitxi gorabeera auxe egitekotan dagoz: antzerki bat, txistularien saioa eta jantza batzuk. Dana Zeanuriko bertako jentek eginda. Au izango litzake Zeanuriko jantziaren leenengo saioa jentearan aurrean.

MENDIA ETA INGURUAK

Zemendieran 19 an, Lokardara joan gintzezan gazte talde bat jaia igaroten, eta ondo igaro be! Aurrerantzean denborak laguntzen badeusku domeka goiz guztietan mendiren batera joatea pentsatzen dugu. Zeanuriko leku eder asko ez doguz ezagutzen, eta kanpokoak baino erriko toki, paraje ikusgarriak leenago ezagutu bear doguzala pentsatzen dogu. Olantxe uste dabe Luis Mari eta Joseba "Kaminiokoak" eta Kikok, ze baserritik baserrira ari direz, ermiten, iturrien eta beste artedun gauzen argazkiak ateratzen. Jarraitu olantxe aurrera mutillak! ze, olango gauzen bearrik badauka Euskalerrriak.

SABIN

elgoibar

HAU ERE ESAN BEHARRA DUGU

"Irakurleak mintzo" saila dela-ta, oso pozik irakurri ohi dugu sail hau, nahiz eta batzuetan astakeriak azaldu. Zenbait kankailurentzat «eskape» bezala ere, bere bete beharra du eta bide batez, beste zenbait hegalekoren pulsoa hartzeko ere bidezko dela uste dugu.

Bainan, gaurkoan Donostiako M. A.-k gure herritar G. M. Garateri 488 garren alean idatzi zion naz bat nagoela esan nahi nuke. «Baserrria da oraindik euskeraren gordeleku. Baiña ez da aski euskal-idazle eta maixu izateko»... «Adiskide asko ditut baserrian jaiok eta baserriko euskeraz ondotox moldatzen direnak. Baina ez dira euskeraz hitz bat ere idazten ausartzen». Ez dakit nor denik ere M. A. hau, baina, guk esan ohi dugun bezala, egia ondo «biribildu» du. Nik neuk ere, nere urterik onenak baserrian pasa nituen, bainan hala ere Euskerazko ezer gutxi irakurri nuen. Erderazkoa ere ez genuen gehiegi irakurten, baina irakurten genuen apurra, hortik irakurten genuen eta egunkari bateko eta erderazko «ASPECTOS» salaren bidez iratzarri eta idaz lan hauek bultzatzerik hasi nintzen euskal arloan. Harrez gero eta neri gertatua beste askori ere gerta badakio ere Z. Argia beran saltzen ere ibilia naiz baserriarren tartean eta danetarikoak arkitu ditut eta batez ere negatiboak asko eta positiboak oso gutti. Egia da, hauetarikoak kalean ere ez ditugula dozenan hamairu. Z. Argia saltzen ari nintzela eta baserriar batekin gertatua azalduko dut anekdota bezala.

Ni bere ezaguna nintzalako edo, asteoro erosten zidan Argia, bainan egun batez honelatsu hitzegin zidan: «Gurian paketiak egiteko-ta behar izaten juek papera baina prezio berdinean erderazkoak paper asko gehiago jaukak eta ez dixat gehixago erosiko». Nere erantzuna: Hi, paperik merkiena paketeak egiteko, rolloetan dagoena izaten dok. Itxura zuanez, harek paper zikindua behar zuen, baina ez euskerarekin zikindua. Baserritarrok ondo dakigula euskera? Ba daiteke, bainan zertarako? Ez bai gara konaturatu dakigunik ere.

IPUI SARIKETA

Pedro Miguel Urruzuno ipui-idazlearen omenez. Elgoibarko Udaletxeak babesturik, Urruzuno ipui idazlearen omenez

ipui sariaketa bat jartzen du Elgoibarko Ongarri Kultura Elkarteak.

- Sariketaren oinharriak:
- 1) Euskeraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968) gomen-datuako idaz legeen arabera.
 - 2) Gaia: ipui bat izango da.
 - 3) Egileak bere kabuz egina izango da eta ez da ontzat hartzen itzulpenik.
 - 4) Lanak, orrialde batetik makinaz idatziak, lerro une bat zuri utzirik. Lanen luzera: orrialde bat guttienez eta lau orrialde gehienez.
 - 5) Elgoibarko udaletxeak jarritako sari bakarra 5.000 pezetakoa izango da; epai mahainak hala uste badu, erdibana dezake, baina ezin da hutsean utzi.
 - 6) Mahai-burua Euskaltzaindiak izendatuko du.
 - 7) Lanak Sociedad Cultural Ongarri (Centro Orbitarte, Elgoibar) zuzenbidera bidali behar dira 1973-ngo urtarrilaren 6a baino lehen.
 - 8) Saria Urtarrilaren 28an, euskaltzaindiak Elgoibarren egingo duen batzarrean emango da.
- Etxe-Pe-tarrek

pasai antzio

"KEXALDI"

Hona hemen herri honetan "KEXALDI" elkarteak zabaldu duen idazketa: "KEXALDI" ELKARTEA: Honez gero ezagutuko duzu nolabait behintzat, elkarte hau. Bainan gure asmoak zehazki jakin ahal izan ditzazun, hona hemen bi hitz:

Hildako haziak beti eskeintzen du frutu, eta gu ere duela hiruren bat urte itotako elkarte bizzor baten azken arnasa gara.

"Alkartasuna"k zeramatzkien zenbait lanen galtzea ezinezkotzat jo zen, eta nunbaitera hartu behar eta, "Caja de Ahorros Municipal" ak utziriko lekuez baliatu ginen, gaur arte.

Hauek dituzu aurrera eramanda-ko ekintzak:

- Haur dantza talde bat.
 - Euskerazko ikastaroak, nola umentzat, hala helduentzat ere.
 - Uda-oporrak haurrentzat.
 - Mintzaldiak noiz behinka.
 - Zenbait jairen antolaketa, etab.
- Somatuko zenduenez, gure elkarte honek euskeraren eta euskal kulturaren aldeko jokoak darama. Behar bada ez gara gehiegi arduratu kultura hutsezko gauzetan, eta ez da izan, ez, gogorik ezaz: finantziabideak direla, edo eta leku kontuak... ahaleginak eta bost egin ditugu, bainan gehienetan, tamalez, ezinak lotu gaitu.

Asmo on guztioi alferrikako grinak bihur ez daitezten zuregana gatz laguntza eske. Oraindik oraintsu, leku zabal eta propio baten premia oharturik, diru kontutan oso sarturik gaituzu.

Orri honen bidez dei larri bat egiten dizuegu pasaiar guztioi, gu geu bezala, euskeraren eta euskal kulturaren alde jar zaitezten. Legeak ere baimena eskuratu dugu. Ez dezagula honelako okasiorik gail!

Talde koskor batzutan daramagun lana HERRI OSORA zabal dadin behar beharrezko delakoan gaude. Eta hortarako...

Bil gaitezen! Euskal kulturak langile sutuak behar ditu. Anitz fruitu ikusterik izango ahal dugu, gu ere hil baino lehen... Aurrera! Asmoak laguntzarik merezi du! Batzorde Zuzendariak.

Dudarik gabe, beharrezkotzat dadukagu hau bezelako ekintza bat. Izan ere bazter hauetan euskal giroak goera kaxkara du. Gainingiroki baldin bada ere, ezagutzen dugu bai, "Kexaldi"-ren gogoia. Eta ziur gaude herriak erantzun egokia emango diola euskal planteamendu honi.

KOLDO-XABIER

ERAMAN - EKARRI'ratze
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIARAKO
Urtutziak: 424320 - 427725
Iparregea, 8 - DONOSTIA

EGIZU arpide berri bat
Urte Berrirako
egizu beste arpedun
bat


bazkari onaren zainpagarrian
eta txarraren estalgarria

LA CASA
DEL CAFE
Juan Jirondo

San Marzai, 19 - Urrut. 413801
Donostia

ECHABE
ETXABEREN
Musible - Etxea
Fuzo'en Enperantzta
Urtutziak: 84 10 78
84 11 24
ZARAUTZ

FAGOR
edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala



Ormaiztegui

isasondo

Isasondoko bat naiz, eta zuei zerbait prestatzeko asmo guztiekin natorkizue. Badakit, herrian badaudela ni baino askoz iaioagoak lantxo hontarako; baina nehorik heltzen ez dionez, nik heltzen diot. Beraz trakets xamarra eta pertsona naizenez, hutsuneak barka eta ez ixilik utz. Ea zerbait lortzen dugun!!

EUSKAL ALFABETATZE IKASTAROA

Urriaren azken egunetan hasirik, larunbatero ordubetean iharduten gara euskara ikasten.

Gaztetxo talde handi bat —ortara lauorgeri— Maite Olazabal andereño prestuaren zuzendaritzaren pean bildu ohi gara. Dakusazuen bezala, sail handia; haatik, egun gaztetxoak soilki bildu arren, edonor —nahiz 50 urtetakoa, nahiz gazteagoa edo zaharragoa delaike ikastaro hontara.

Daramagun egitarau zera da gutti gora-behera: hots gure sorteri den Isasondoren kondaira ikasi, euskal gramatika ere dexente, eta abar. Agian, batzuzentzat ez da programa aberatsa izanen. Hori dela eta, hona gure eskabidea: baten batek era hoberen bat bada-kusa, etor dadila guregana eta ager bizaizkigu bere asmoak. Eskerrik asko.

LIBURUTEGIA

Gure herrian bada liburutegi bat herritar guztioi prestatzeko asmoa. Ez dakigu noiz zabalduko den, baina bai non ezarriko zaigun: hots, Udaletxearen azpikaldeko gela batetan. Ez dakigu, ez bait gara profeta, zelako jarrera egingen zaion: agian onegia, agian txarregia eta agian ona eta txarra. Hori, zelako jarrera egitea alegia, bi gauzen baitan datza batipat: hots, irakurtzeko prestatuko ote garen, eta zer liburu ezartzen zaizkigun. Gure nahia zera da: euskal editorialek argitara ematen dituztenak ere barne izatea.

Izan ere ez bait gaude "Castillan", Euskal Herriko herritxo batetan baizik. Ea bada kontutan hartuak izaten garen euskaldunok. Hala izan dadila.

ALITZA GARATE

bergara

ARANZABAL TXIRRINDULARIA

Abenduaren amazzpian gure Aranzabaleri Bergarao erriak omenaldi bat egingo dio bere txirringularitzari agur egitean, bere bizikleta zintzilikatzean.

Lerro auk idazterakoan omenaldiaren egitaraua osatzeko dago, baiñan esaten denez, bazkaria «ARIZNOA» jatetxean izango da; bazkaldar asko izango ote dan degu itxaropena.

Gure Aranzabalek ibili ditu Europar zear ainbat izen, baiñan ez det uste merezi duen beste jodiotenik; ez duelako ezagutzen mutil onen nortasun eta apaltasuna.

Guk, ezagutzen degunok, bera-ekin lantegi batean ibili geranok, nor dan Jesus, zerbait esango genduke.

Kirolzale gogorra; beti ikusi dugu eguneroko arloan zintzo bere eginkizunak betetzen.


Lantegiko lagunen artean, alako —fanatismo— bat sortu zan. Gu-rettzat ez zegoan ez Bahamontes, ez Loroño, eta ez... barkatu, San Pedro.

Agur egiten dio, kirol astun, gogor oni eta bere bizikleta, ainbeste kilometro egindako astoa, txotx egingo du.


Ontan ere gure Aranzabalek argitasun berezia izan du.

Arlo ontan gabiltzanok dakigu gure ikastolek nolako buruko miñak ematen dizkieten arduradunei; diru eza, zorrak, zuloak...

Aranzabalek ia berrogei milla pezeta balio duen bizikleta txotx egingo du, eta aterako diran txanponez, ikastolei laguntzeko izango da. Zenbaki bakoitza beste durotan salduko da. Ez degu uste bost duro oiek iñork ukatuko dituanik.



Idiazabal



Zerain



Ataun

Amama, ama, etxeokandere, erosi zenbakiak. Nork daki zuen umea au dala eta biar edo etzi Frantziako Tourren garaille aterako ez ote dan?

ERIoTZA

Joan dan illaren ogeita amarrean il zitzaigun BARRENA ETA ARREGITAR SANTI berrogei eta amabost urterekin.

Aspaldian genduan laneko lagun, leenengo mallako sopletista trebea; au dala ta, Maestria Eskolan, sopleteko ikaskizunak ematen zituau maixu gisa.

Santa Marinako eleiz nagusian izan ziran elizkizunak. Jendea erruz zan.

Bere emazte, alaba, anaia eta aaide guzietan, gure samin agurra. Goian bego.

Il onen lauean, larogei eta iru urterekin joan zaigu ARTEABURU ETA EZKULUATAR SERAFINA, Azkargotatar Patxiaren alarguna, «Onena» margolaritzakoa.

Bergararren artean ondo ezaguna genduan Serafina.

Amonatxo maratz eta bizkorra; zenbait naigabe izanarren etxea aurrera atera duena.

Bergararrek gogoan izango dituzte zure senarrak eta zuk egindako mesedeengatik. Agur Serafina.

Bere seme alabei, Karmen, Iru- ne eta Patxiri sui, Anjel, Martin eta Juliri, gure naigabea agertzen diogu.

Goian bego. EZPELETA ETA MUJIKATAR MARTIN. Goenboluko okiña, il onen amaikan alden du zaigu irurogei eta amazapi urterekin.

Bere familia guztiari, gure naigabea.

Goian bego.

EZKONTZA

Il onen emezortzian San Pedro eleiz nagusian ezkondu zan gure lantokiko lagun genduan Aranzabal eta Albizuar Karoli andereñoa Plaentxiako mutil jator batekin. Izan dedilla zoriontsu bere bizi berrian.

pasai donibane

IRAKASTEN ETA IKASTEN

Lanetik etxera eta alderantziz ibiltzen den pertsonari, inorekin harremanetan jarri gabe bizi denari, bere etxeko «kabitxoan» goxo-moxo telebista ikusten ari denari, ea zer-nolako giroa (euskal giroa jakina!) sumatzen duen herrian galdetzen baldin badiozu, «ezertxo ere ez dela egiten» erantzungo dizu, bere kontzientzia lasaitzeko agian. Horrelako gizon-gazte-emakume-apaiz-moja eta abar anitz, ugari dugu.

Baina, hemen, herri ttipi hontan, besteengatik kezaketen direnak baditugu zorionez. Buru-belarri zenbait ekintzatan sartuta dabilzanak. Hona hemen xehetasun batzuk: TXISTU ikasten ari direnak, 20 neska-mutil koskor, bi taldeetan banatuak, Nati Etxarri eta Joxan Goienetxea irakasle dituztelarik. SOL-FEOAn, 40 neska-mutiko, hiru taldeetan, Angel M. Etxarri eta Lourdes Agirregomezkorta (Worf metodoa) irakasleekin. DANTZAN, 120 neska-mutiko, 10 taldeetan, Joxan Goienetxea eta Angel M. Etxarri irakasleekin.

Ikasbide ederra guretzat, lo-zorroan eta patxadan bizi geranontzat! Aurrera kemenik galdu gabe!

EVEREST

Euskal-Herriko mendizale trebe- enak 1974 urteko, otsailan. Everest mendi tontorrera igotzeko asmoz, jo-ta-ke gertutzen edo prepa- ratzen ari dira. Hauen artean, gure herritar Felipe Uriartek, igoera hon- tan parte hartuko du. Ea bada Fe- lipe, amesten duzuen gailurra irix- ten duzuen! Bitartean ekin gogor preparazioari.

SOLDAUSKARA

Juan Bta. Berasategi adiskideak, lantegia utzi beharra izan du, soldaduska betetzeko garaia etorri bait zaio, Sahara aldera «suertez» tokatuaz. Ba! etxeko albo. Hi la-

sai Juan Bautis, bixitatxo bat egin- go diagu-eta!

JAIOTZA

Jose Luis Oteroren emaztea den M. Luisa Arbellak, nexka eder bat izan du. Itziar izenez bataiatu dute. Zorionak!

HERIOTZA

Berri mintzatu datorkigu Isasondo herritik. Gure ikastolako irakasle izan den Dn. Joxe Mari Aizpurruren anaia gazteena, 33 urteekin hil egin dela. Gure ikastolako ume- txoak, bere dolimina nolabait ager- tu nahirik, elizkizunean izan ziren.

Hitzek ez dute balio egoera hon- tan Joxe Mari; dena dela, har zak nure eta gure samin gartsuena!! Iñalurretak

tolosa

LIBURUTEGIA

Udaletxeak lehendik irikita zeu- kan liburutegia, ostera dena berri- tuta gero, berriz zabaltzekotan da. Badakizute hau, S. Franzisko ibil- tegia dagoela, Artxiboko gelatan hain zuzen.

Jakin dugunez liburu berri asko- rekin hornituta, eta guretzat gar- rantzi handia duena, euskal libu- rurik ere ez dela faltatuko. Beraz gazteek badute non denbora pasa eta baita beren kultura gehitu eta sakontzeko aukera ederra ere.

HAURTEGIA

Haurtegia (guarderia) ere laster irikita ikusteko zoria izanen dugu. Eragozpen batzuk izan dira baina danak gaitundia ondoren berehala publikoari eskeinitako dizkio bere zerbitzuak. Honela izanen dela da- dukazgu bederen esperantza.

UDALETXEKO ESKOLA

Lehenengo batez udaletxeo ikasto- laz aritu ginan, eta bertan azaldu genduen bere gaurko egoera. Gure iritzi egoera larria. Batetik ez du- gu uste, bere helbururik beteko duenik. Noski euskeraz irakatsi haurrei eta bestetik non jarraiturik ere ez dutela izango haur hoiak. Beraz beste eskola nagusi batera.

Basika egitera doazenean hoi- en euskara, baldin ikasi badute, pik- u-taira joango dela berehala.

Beraz zer egin? Gure ustez uda- letxeak jarraipen bat eman behar dio parbulario gisako ikastola hor- ri, eta hau lortzeko bi bide izan ditzake. Bat: berak basikan jarrai- tzeko ikastola bat sortu, edo bes- tea Laskuraingo ikastolari laguntza bat eman eta berari eskeini jar- raipen hori. Honek ez du esan nahi beste biderik ez dagoenik, bai- na guri hoiak biak burutzen zaiz- kigu. Ez ahal da posible elkarriz- keta bat?

Uste dugu gaiak merezi duela arduratzea, bestela alferrik izanen da ikastola horretan gastatzen den dirua eta haur hoi denbora ere galdua noski.

ASKALEKU

irakurleak mintzo

ZUMAIAKO IKASTOLAZ

Guraso taldearen ordezkio bezala izenpetzen duten Ion Arana eta Mari-Pilar Beobidek beren idazkian diotena irakurri ondoren Zumaiako ikastolaren inguruan sortuta- ko gertakizunen eta beren jatorriaren arrastoa zeharo galdu dutela ezpairik gabe esan ditek.

Egia osoaren zale direla- aitorren dutenez gero, oroi- meneko lausoak uxatzea be- har-beharrezkoa dutela ezin uka; hori lortzeko, batzorde- ta irakasleen artean guruz- tatsu ziren idazkiak, azkenen- go batzarrean irakasle eta gazteek irakurri zituzten orriak eta azkenik batzorde- ko zenbait irakasleek izenpetutako informea behin eta berriz irakurtzeko kon- tseilatzen diot.

Orri hoiak eskuartean ez balituzte ikastolako eska- deaiezkiekete. Berdin arazo hartaz interesaturik egonen lirakeen guziek.

E. Senosiain

DENBORA LIBREA

Oraintxen ere badago kez- karik gure erri honetan. Izan ere, langileok gero eta den- bora gehiago libre nai dugu. Baina ez denak era berdine- ra. Batzuek astearen zehar ahal den eta ordurik gehie- nak sartu nahi dituzte, gero, larunbatean, jai izatearren.

Aste egunetan, ordea, zaz- pirezatetik hirurak arte lan egi- tea askoz komenigarriagoa zaigula derizkiogu: bai den- bora librea aprobetxatzeko, estudiatzeko, hezitzeko, se- me alabataz gehiago ardura- tzeko.

Langileok denbora librea behar dugu, gero eta ge- hiago gainera, baina senti- du bat emanaz, denbora li- brea aprobetxatuaz. Badago zer eginga, eta guk geure bu- ruak landutuz ez baditugu, geure seme alabei ongi erantzuteko egokierarik ez dugu izango, edozeinen sa- retan eror daitezke.

Lizarraga (HERNANI)

EGIZU arpide berri bat Urte Berrirako egizu beste arpedun bat

Joseba Salegi


Oso ezaguna izan da Donostiako euskaldunen artean Joseba Salegi. Tamala da baina gure artean joan zitzaigun Azaroaren 22an. Amarako "Sagrada Familia" eliza gainezka bete ikusi genduan haren aldeko hiletan elizkizunean.

Ez dut uste merezi hainbateko eskerririk agertu genionik bizi zelarik. Hildakoan bakarrik jabetu ginan Euskal Herriari egin zionaz. Horixe gertatu zaigu guri ere agian. Han bildu ginan maite zutenekin batera Josebaren alde otoiiz egitera.

Har beza atsedean eta aitor dezaigun gurekiko lana. Askotan etorri zen Z. Argiako banakolaria laguntzearren, bere lanak utzi- ta. Honek zuzendu zion fitxategia. Honengandik hartu zituen ekonomi-biderako zenbait burutapen ere. Honek lagundu estual- dietan diru-etxeetatik dirua ateratzen. Eta hau guztia aldizka- riarri ezerean loturarik jarri gabe, bere bidean aske utzi.

Har bezate honen etxeok gure samin-agurra eta Joxeba zenak, berriz, gure esker onezko otoiizta.

ZEBUKO ARGIAK



Oñati



Lasarte



Tolosa

ataun

HOLAKOAK GARA...?

Askotan, gahienetan ez esateagatik, gauzak ez dira guk nahi bezala gertatzen. Gure asmo jatorrak erdibidean gelditzea, ez da harritzekoa izaten. Gure nahiak asetzeari litzake bidezkoena, baina gauza batzuen aurrean ezina, oztopoa, kokka, azpijana direlata, azkenik nazkatzea aspertzea, izaten dira zenbait ekintzagaien bukaera trixteak, baina "bidean laguna erortzen bazaik, lepoan hartu ta segi aurrera". Esatea errazago, egitea baino.

Gauza asko dira herri berezi baten burrukan, kontuan hartu beharrezkoak, eta gurean ere bai. Hauzo borroka, goiko eta beheko arteko borroka, pentsakera desberdinak talde batean, oraindior ere borroka zailagoa egiten dute, baina zerbait lortzen denean, arantzaz jositako pausoekin eskuratua izaten da. Saltsan ez dabilenak ez daki, eltzeta nola egosten den, eta askotan egosi duenak baino arrazoi gutxiagorekin, egoskaria jaten zenbait ikusten da.

Beraz ikus dezagun, aurtengo eltzetik zer atera den. Urtearen hasera oso kultura kutsukoa izan zela, esan genezake, ilbeltza edo urtarrila hitzaldiz jositako egon baitzen. Sanmartinen, Karlos Santamaria, Gorostidi (bi hauek lehenengo aldiz eman zituzten bere hitzaldiak euskeraz) eta Joan Sanmartin. Maila handikoak, gai sakonegiak herritarren kultura ikusita, behetik hezi behar dela herria eta horrelakoak entzuten ziren, Hori ziotenek, berekin arrazoi piskabat bazuten baina kritikatzetik kritikatzera Jentil-Baratzatik Punta-Haundira edo Izkintzara, Don Joan Txirik arrazoi esaten zuen bezala.

Sangregorion, Imanol Laspier, Josu Aranburu, Patxi Meabe, Joxemiel Barandiaran eta abar. Izen asko eta Hitzaldi asko, jendearen adinari begira.

Itsu-itsuan azaldurik, eta hainbeste hizlari, bai Sanmartinen eta bai Sangregorion ikusiaz, harropuzteko gogoia ere zenbaiti sortuko zitzaion.

Urteari hasera emateko ordea, hitzaldi hauek zirelata, agertu zen, hauzo-borroka lehen saioa. Hitzaldi bat baino gehiago, bi hauzoetan egun berean izan ziren. Hauzo batek lehenengo eratu zituela, eta batere errespetorik gabe, egun beretan jarri zituztela, besteak berriz ez zekitela ezer, eta abar. Kontuak kontu herrigintzak pauso bat aurrera eman beharrean, herria kulturaz jantzi beharrean, hauzo arteko borroka gogortzea besterik ez da egin.

Hil hontan bereontan, 50 etxebizitzaren zozketa izan zen, eta beste sail bat egiteko asmoak azaltzea.

Otsaila ere ez zen hutsa izan. Patronato-eskolak egindako diru-eskaria (352.000) zelata, udal-txean, berebiziko ixkanbila izan zen, herria garai irten arte.

Jexux Altuna buru zela, zenbait jende, espeleologo, geologo eta abar, Troskaetako koba-zuloan izan dira, beste Hartzen baten eske?

Aurtengo martxoan San Gregorio festarik ez da izan, eleizak agorrera igaro dituta. Beste arlo batean, 25 gazte soldaduskarako neurten dira. Lanleku arazoari buruz, lantegi herri bat egitera doazela, entzuten da.

Ekainean, Umarruko zubi ospetsuan, bi lagun Hiltzen dira, toki horren prolema estuago agerariaz. Hil honen 26an elurra xuri-xuri kalerarte, nahiz bereala eguzkiak urtu. Baita ere agertzekoa da Oargik eraturik Agaoz eta Aiatik zehar izan zen Ibilaldi Neurtua.

Maiatzak, lore baino arantza gehiago eman zuela esan behar. Lazkaoko festak zirelata, tardean 7 herritar giltzaperatuak izan ziren, eta jipoiak hartu ondoren etxeruntz bidaliak. Beste aldetik Praixkonekoen urre-etzaiak zirelata Biktorrenean zenbait bertsolari, trikitixa eta abar izan ziren. Baita ere aurtengo lehenengo aldiz 1797z gero, Aia hauzoko festak hil honen bukaerara igaroak dira. Sangregorion gazte-festa delata bada ikusmira: gazte-meza, ibilaldi neurtua, dantzariak, antzerkia, erromeria eta a.

Ekainarekin batera uda, atsede-

na. Iruditzen da jendea gutxiago mugitzen dela, badakigu ordea hori gezurra dela; maiz lan izkutuak eta isilak eman ohi du fruturik onena eta askotan bera da beharrezkoen. Horrela uda aldean, arrazoi bat dela edo beste bat dela, eginkizun nabarmen gutxi izan ohi da, hemen eta han, iritzi hauekin inoren lanik gutxietsi gabe.

Gaurkoz edo oraingo aski dut, giroa ez baitago txantzetako. Beste batean urtearen zerrendari jarraituz zerbait gehiago ere esango dut. Gaur Sanmartinak izan direlata lan kaxkar baten agertzea besterik ez da. Baina herriak eratuak festak ez direnean, ez dira herri-festak eta festetako "propina" bezala buzoietan agertu zen erdal-agiria... Guraso Elkarteak hor daude erantzuteko, merezi badu behintzat.

Limuritako karraxia

zumaia

Zuzendaritzaren oharra: «Olarru» berriemalleak idatzitakoaren aurka Arana-Beobideren lana eta beste bi eskutitz argitaratu genituen Azaroaren 19ko Z. Argian. Berririo «Olarruren» erantzuna jaso dugu. Baina interesgarria bezain luzea izanik, laburturik eskeintzen diegu irakurleei. Hauzia zehatzago eta orpotik jakin nahi dutenek eska bezate Zumaia ikastolara ikastaroren hasieran zabaldu zuten lantxo. Eta alde batekoarekin baka-rik gelditu ez dadin eska bestaldeko Arana-Beobideri. Ez dugu uste aldizkariaren bidez hauzi hau gehiago garbi ditekenean.

—oOo—

«Lotsagarri direlako etxe-zokoan gorde behar genituzken kontuak zabaldu ditugula eta izenordeko gainera «diote Arana eta Beobidek. Zoritxarrez, gure idazlan laburrean esaten genduen guztia baino mila bider lotsagarriago diren kontuak aspaldidanik daude hedatuak Zumaian eta Zumalatik kanpora. Eta ez guk noski. «Olarru» izenordea, berriz, ezaguna da Herrian eta Z. Argiako irakurleen artean. Bataloko izen-deituraz bezain ezaguna askorentzat. Izena gordetzeko beste izenorde ezezagun bat erabiliko genduen.

«Euskera mingañean artu eta beste dotriña bat erakutsi... «ikastolaren asmo eta jokabideak aldatu dira» eta abar, leporatzen diguzute. Baina zer oinarri eta arrazoibide duzue hori guztia guri ezartzeko? Behin eta berriz eskatu zaizkizue eta ez dituzue ematen.

«Gogorkeriz eta inori baimenik eskatu gabe sartu ziran... «gurasoen euren erabakiak artu behar ta gazte taldea ezarri indarkeriz», Arana-Beobidek diotenez. Baimena eskatzera sartu ziren gazteak. Baimena eskatzeko ere baimena eskatu behar ote zuten? Eta idatzirik zeduzkaten iritziak irakurri besterik ez zuten egin. Hori al da erabakiak ezartzea? Gogorkeria bakarra iritzi hoiek norbaitzuen gogoko ez izatea izan da.

Ezin uka Zumaia ikastolan Euskal Herriko besteetan bezalaxe jera desberdineko euskaldunak genduenik. Gauza txikitari eta uskeritan hasi zen lehenik eztabaida. Azkeneko ezin-ikusia, gorrotoa eta tema itsua gailendu ziren. Suma-ahalak asmatu eta zabaldu ziren gurasoek irakasleenganako konfiantza gal zezaten.

«Gure ikastolari asiera polita eman zitzaion, umei gure izkuntza, erlijioa eta euskaldun izaten sartzen diran erakusgai guztiak erakutsiaz», dio J. L.ek. Orain ere hori guztia ematen da.

Guk, nahiz eta beste batzuk zuzendaritzan egon eta hoiak jokabideaz ez ados etorri, ez ditugu gure umeak ikastolatik atera. Aitzaki asko ditu gure ikastolak baina ikastetxe hobeaotara eraman ote dituzte orain beren seme-alabak?

OLARRU

mutriku

NEGU-ATARIAN

Abendua. Neguaren atari eta urtearen azken-illa. Abenduarekin da-

torkigu neguko mingostasun, ixiltasun, gau-luzearen nagikeria eta egunaren laburtzea.

Negua gogoratzen, edozeini bururatuko zaio sendi arteko giro goxo, berriketaldi, aita-semeen arteko musaldi, umetxoan biurrikeria edo etxe-jolasketak.

Neguak, elurte luzea mendietan, eta euri, kazkabar-zaparrada kaleetan.

Neguak dakazki ekaitz gogor eta itsasoaren aserre beldurgarriak; arrantzaleen arteko goibeltasun, egoera luze, aspergarri, eta itsasoratu ezinak.

Neguak dakazki urteko jairik ospetsuenak ere: Sorkunde Errugabeiko, Gabon gabeko abeslari taldeen abesti alai pozgarriak, sendi arteko batzar, afari ondorengo alaitasun, bertso, txistu, irrintzi eta abar...

Jesus Aurtxoaren Jaiokunde, Urteberri eta Errege eguna, Sendietako batasun, maitasun, pake eta zoriona. Negu-biotzeko pakea pozkaria da. Gertu gaitzen bada naguari arpegi emateko.

IZKETALDIA

Bai dirudi JAUJA-ko gazteriak,

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartuak, eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

DENDA USTUTZEA

JANTOKIRAKOAK

TRESILLOAK

LOGELARAKOAK

KRISAILU ETA OIN-OIALAK

MODURIK ONENEAN DIRUA ESKURA

AMUEBLADORA

COMERCIAL HISPANIA

Donostian Irunen
Moraza, 14 eta 15nean San Marzial, 12nean

ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

EUKERAZ MINTZATZEN DA

EGIZU arpide berri bat
Urte Berrirako
egizu beste arpedun bat

ANDONEGI

«POLITIKAN KRISTAU IHARDUNA» «Jainkoa ez da zeharo il»

(Frantziako Gotzai-Batzar Nagusiak)

II Kapituloa.—Kristauak, Iskanbilak eta Giza-maila arteko borroka

2.—ZENBAIT INTERPRETAZIO-ENTSEGU

Borroka eta iskanbila horietaz, eta beroien baliatzeaz, eta beroien gainditzeaz, interpretazio desberdin asko egin da.

—Gauza baikorra da kristauen-tzat, bizi dituzten iskanbla horiek zorrotzago analizatzen hasi izatea, azaleko itxuren azpian dabilzan mekanismoak eta jarrerak berezteari ekitea, gertaerak eta ekintza aztertzekoan zein ideologiak bultzaturik dabilzan argiago ikusten saiatzea.

—Ebanjeliozko maitasun-legeak ez die kristauak eskatzen zuzengabekeria etsi dezaten. Aldiz, zuzengabekeria zinez eta egiaz garaitze-ara eragiten die, haren ispiritu-sustraira eta hain lur emankorra eskaintzen dioten egituretara joaz. Maitasunari buruzko sasi-teologia dakarte mahain-gainera, bai iskanbilazko egoerak disimulatu nahi hitzketenek, bai elkartasun konzeptua ahotan darabiltenek, horretarako gisa guztietako talde-etsaigoak diren baino txikiago azalduaz. Ebanjeliozko maitasunak analisia garbia eskatzen du, eta egia handiagorako bidea ireki dezakeen aurpegi-emate kementsua.

—Liberalismo bakoitzak, nor bere interpretazioa egiten du iskanbilei buruz, nola teorian hala praktikan. Gotzai-Batzararen sozial Batzardeak, 1966ko otsailean argitaratu emaniko txostenean, "Réflexions sur la situation économique et sociale" zelakoan, interpretazio eta praktika horiek kritika zentzuz aztertzeko eskatzen zuen. VI Paulok ere gauza horretaz dihardu Roy kardenalari eginiko kartan, gaur eguneko pentsamolde handi guztien azterketa beti ere berritzen joateko eskatzen duenik. Zenbait katoliko mugimenduk, oraindik orain, eginpide horri ekin dio.

—Gaur egun, gauza berri bat sortu da, haatik. Giro desberdinetako kristau askok —langile, nekazari, intelektual—, berak bizi duena, "giza-maila arteko borroka" esakunaz adierazten du. Esakun horrek, haien iritziz, topatzen duten



Ebanjeliozko maitasun-legeak ez die kristauak eskatzen zuzengabekeria etsi dezaten.

egoera bat adierazten du, beraiek, ez asmatu ez hautatu, ez dutena. Askorentzat esakun hori, egoera bat adierazteko ezezik, egoera konkretuak ulertzeko eta argitzeko funtsezko giltzarria da. Gainera, talde-ekintzazko ihardunbide egin-korra adierazten du esakun horrek.

Garbi dago, "giza-maila arteko borroka" delako esakunaren hari-ko analisia horrek, militante askori lagundu diola zuzengabekeria eta desberdinkeria dituzten egiturazko mekanismoak ikusten eta argitzen. Hau ere esan behar da: bide horretaz giza-maila arteko borroka buruzko marxista analisiabidea adierazi nahi dutela, gutxi edo asko.

Gizarte zuzenago eta senidekoia-go bat egiteko ametsa bidenabar okertu ez dadin, bide guztian zehar ebanjelio-senazko giza-eragin baikorraz indartua dadin, nahitaez-

koa dute arazoa argitzen eta berretzen saiatzea. Jadanik, askok ekin dio hemen gogorazten ditugun puntuak kritika zentzuz aztertzeari.

—Ezin ahazten ahal dugu, beste batzuek, gazteek bereziki, beste interpretazio bat ematen dutela gure gizarteko iskanbilazko egoeraz, interpretazioa kulturaren, teknika-aren eta agintearen jirabiran hezur-mamitzen dutelarik. Horretan ere, argitze eta berezte lana beharrezko izanen da (jarraituko du).

EGIZU arpede berri bat
Urte Berrirako
egizu beste arpedun bat

Onako izen buru au ez duzu manifiesto edo agiri integrista baten oihua. Jainkoa il dela dio zenbait kristau amerikanoek. Amerikanoek izan behar! Gure artean ere izan zuen moda izen orrekin ornitutako «teolojia» batek. Pentsakizun sakonik ez zuelako edo-ta amerikar gizartearen azken frutu ximurra zelako (Christ-Super-Star antzera), moda orretaz ahaztu gerala esan behar gaur egun.

J. M. Gonzalez Ruizek onela aipatu du guk aukeratu dugun gai au: «mientras en los campamentos «occidentales» se proclama la muerte de Dios hasta convertirle paradójicamente en objeto propio de la teología, en las zonas trabapadas por el ateísmo militante surge pujante un interés sincero por el problema de Dios» (ikus = «Dios gratuito, pero no superfluo» 4garren orrialdean).

Gero ikusiko dugu gure autore onek, Gardavsky-k, Jainkoaren esan nahia nola erabiltzen duen. Asieratik esan dezagun, nahiz eta Jainkoaz mintzatu, marxista aitortzen dela.

Txikitandik, aurtzarotik, gure artean erabilli dugun (sic: manipulatugun) tresna batek ez digu ezertxo interesgarrikerik esaten aunditzean. Gehienez ere oroimen atsegingarri edo bestela trauma sortarazle bilakatzen da gizona eltzean.

Besteek, ateoak alegia, alderantziz gertatzen zaie. Ez dute Jainkorik manipulatugun (ateismoa izan da aien artean manipulatugun duten tresna), eta orrela, personal eta gizarte mailara eltzean erabilli ez duten «tresna» orri (Jainkoari alegia) balio aundikoa deritzate.

—oOo—

Egillearen izena: Vitezlav Gardavsky, marxista filosofoa, Brunn-eko Akademian irakasle. «Marxista ireki» bezela ezagutzen ditugun oietakoa. Marxista eta ateo jotzen du bere burua. Dударik ez dago. Ezin pentsa dezakegu beraz, liburu au teoloji liburu bat denik. Federik onartzen ez duen batek ezin dezake fede-barrutik itzegin.

Liburuaren zati batean onela dio: «El marxista está convencido de que el cristianismo, como movimiento religioso no es imprescindible para el socialismo, para el establecimiento de sus tareas y sus metas. Pero sabe que para muchos que viven bajo el socialismo o que la construyen o que todavía luchan por él, la fe en Dios es todavía imprescindible (28 garren orrian).

Bere marxista izaera «Todavía» (oraingoz) onetan ageri zaigu: Oraindik ateismo osoa bizi ezin ditekialako, beharrezkoa zaigu Jainkoa.

«Jainkoa ez da zeharo il» zera esan nahi du: «Gizonak ez du osotasunik iritzi» (Gizon osatua = ateoak).

Bere burua ateo jo arren, Bibliara zuzentzen ditu bere begiak. Zer dela eta?

Marxismoak gizadi osoaren meta eta elburu izan nahi ba-du ezin ditzake alde batera utz gizadiak urtetan zehar egin eta bizi izan dituen esperientziak. Esperientzi auetan aundienetakoa, dudarik gabe, Bibliak kontatzen dizkigun ipui eta kondaira zaharrak. Gizonak aurrera eraman dituen burruken adierazle trebea bai dugu Biblia.

Ez Biblian bakarrik. Gardavskyk ondo daki Kristau tradizioak Bibliako iturrietatik xurgatu dituela bere pentsakizun sakonenak. Orregatik kristau tradizioan izan diren gizon ospetsuenen zerrenda pasatzen du: Jesus, Agustín, Tomás, Pascal.

lan aundi ori egin ondoren, ez pentsa gero, irakurle, kristauen Jainkoa onartzen duenik. Ez.

Teolojiak bere esan nahi sakonena Antropolojia arkitzen du.

Berarentzat Bibliak eta kristau tradizioak gizadiari zera erantsi diote: sujetibideak, nortasuna. Marxismoak gizadi osoaren «buru izan» nahi badu, kristau tradizioaren fruitu bereziak ere onartu beharko du.

Or legoke Gardavskyrentzat, Bibliak marxismoari eman dizaioken eranskirik bitxiak.


BUKATZEKO

Gardavsky ez dugu edozein motatako ateoak. Marxista dugu eta zenbait azterketa egin ezker, ez oso irekia. Berarentzat ez legoke, ifiolaz ere, marxismoa eta ateismoa berezterik. Marxismoaren «maillak» ez ditu berezten. Eskubide osoa du ori egiteko, baiñan beste errialdetako esperientziak ere kontuan euki behar lirakeela pentsatzen dut gaur egun.

Liburu irakur erraza da, errazegia, gai sakona dela ahatz erazteko arrixkuan jartzen bai du irakurlea uste gaben. Egillearen iritzi bakoitzak marxista tradizioa aundia du berarekin.

Azterketa analitiko bat egingo balu edonork eskertuko lioke. Orrelako liburuak ez dira gure artean egunerok ateratzen.

«Dios no ha muerto del todo»
Egilea: Vitezlav Gardavsky
Edit. Sigueme. Salamanca
Sal-neurria: 165 pts.



YANY

SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)

Alemanian, nagusi iraultzaile bat

Bere lantokian, langileen eskuetan dago agintea

Noren eskuetan egon behar du aginteak enpresa batean? Eta norenean egon ohi da? Nola bana ditekete agintea lan egiten dutenen artean? Orain arte, Sartaldeko errietan, enpresa bateko agintea edukizterik ez zegoen, jabeak izan ezik. Gauzak ez dira sinpleak eta badira teknikorik, jarri duen diruz beste aginterik ere duenik; beren kompetenziak ematen die agintea, baina hala ere nagusiak edozein unetan ken ditzate duen aginte hori. Eta tekniko ez direnak, jai dute aginte kontuan. Hori da «liberal» izena duen sistemaren legea.

Baina ote liteke sartaldeko liberal sistema honetan, enpresa bateko agintearen jabetza eskuz aldatzerik? Hannsheinz Porst jaunak baietz dio.

Porst jaunak ez du nagusi klasikoaren antzik: Ite luze, txamarrak, panazko galtzak. Oso familia aberatsek. 1.400 langiletako enpresaren jabe asi zen lanean. Korreoz argazki-tresnak saltzen ditu bere enpresak. Oraintsu, esperientzia iraultzaile bat sortu berria du, Schwabach errixkan, Nurenberg-tik gertu.

NIK EZ DIOT INORI OPARIRIK EGIN

«Historiak gauza bat adierazten dugu: Kapitalak, diruak dituela eskubide guztiak. Baina diruaren indar hau ez da zuzena. Askotan, dirua eta lana biak indarrean jarri nahi izan dira baina hor ere ez da zuzena, nere ustez. Neretzat, gauzarik garrantzitsuena eta jabe izan behar duena, lana da. Eta nik, gogoeta hoiek ekintzara eraman nahi izan ditut».

«Baina ez dut inori oparirik egin diodanik, nik ez diot inori nere enpresa dohan eman, ez. Denok jarri gara batera lanean. Horra nola:

Lehenbizi, legearen aldetik gure enpresa eraberritu dugu. Taldearen kapitala, dirua, lehen nerea zen eta orain ere bai. Soziedade edo elkarte bezala jarri dugu. Baina diru horren jabetzak ematen zidan agintea ezereztu egin da. Hau da garrantzitsuena. Agintea, iru jereateri (hauekako bat ni naiz oraingoz) eman zaie. Irurok aginte eta eskubide berdinak ditugu eta langile guztiak gurekin bat dade. Joan den urrian asi giñen era berri honekin».

AUTOJESTIOA BIZI-BIZI

Enpresaren buru, 1.400 langilek osatzen dugun batzar nagusia da. Bakoitzak bere botoa du eta hemendik bi urtetara, batzar honek, jereateak alda ditzake auteskundeen bidez, hala komeni dela iruditzen bazaio.

Batzar nagusi horren egitekoa ez da baiezkoa edo ezezkoa ematea bakarrik. Badu beste batzar txiki bat, bederatzi lagunek osatzen duten batzar txikia. Bederatzi lagunetatik bost, langile soilaren ordezkari dira. Horien botoak indar aundia du, gehienak ere berak baitira. Batzar txiki honek jereateen lana zaintzen du, berak izendatzen ditu eta berak bota ditzake. Bi urtez behin aukeratzen da batzar txikia, eta nahi duenean bil dezake Batzar nagusia.

Azkenik, badira beste bost batzar (bakoitza zazpi lagunek osatuta), denak Batzar Nagusiak aukeratuak. Bost batzar hauek bakoitzak bere saila zaintzen du: lan-sariak, oporrak, lan-orduak eta abar.

Autojestioa, izan ere, hori da: langileen borondatek sor ditezela behar diren aldaketa eta eginbideak. Adibidez, merkatu aundi bati baiezkoa ala ezezkoa eman behar zaien, beste lantokirik erostea komeni den, tallerren bat berri ala salduko den, eta abar:

Baina hau dena ez da anarki giroan egiten. Kapatazak eta teknikoak bere erabakiak artzen dituzte eta zer egin behar den adierazten dute; baina langile soilak beti dute hura eztabaidatzeko eskubidea eta hau, bulego-bulego zai egon gabe, zuzenean, aurpegi-aurpegi.

Hau ongi irtetzen bada, 1.400 langilei bidezko den informazioa ematen zaizkela izango da. Izukiko interesik eta biderik ez dagoelako.

IRABAZIAK NORENAK DIRA?

«Nik —dio Porst jaunak— dirua «elkarte diru» bezala jarri nuen eta hor dago, geldi. Ez dut pentsatzen diru horrek umeak egin behar dituenik; enpresa martxan jar zedin eskeini nuen. Hala eta guztiz ere, urteko irabazien ehu-

neko 7,5 nik jaso dezadala erabaki du batzordeak. Gainontzeko irabazia denon artean banatzen da: ehuneko 25, denon artean, denok berdin jasoz eta ehuneko 75 «prorrata» eran bakoitzaren jorrala eta erantzunkizunaren arabera. Dena den, diruak ez du zer ikusirik, zuzendaritza, produzio edo enpresa lanez. Hor datza gure iraultzaren gakoa.

Guztion irabaziak elkarte-diru bezala jartzen dira eta bakoitzak bere zati hori eraman dezake erretiratzeko denon, edo eta enpresa utzi eta handik bost urtetara.

LAN-SARIRIK TXIKIENA: 21.000 pezetakoa

Pozik ote dago enpresa hontan langilea?

«Ederra da —dio sekretaria batek—. Nere ustez hemen denok pozik gaude baina etekiñak ikusi behar».

«Ondo dago —dio 18-20 urtetako gazte batek—. Hau benetako soluzioa dirudi. Gerora ikusi behar».

«Guretzat oso gogorra da —dio tekniko batek—. Gure mentalidade eta sistema guztiak aldatu beharrean arkitzen gara. Ikasi dugun guztia ahaztu egin behar eta berriro asi. Nagusia zer den, jerarkia zer den... hori dena putzura joan da».

«Hemen nagusitza, jerarkia, lanaren kategoriak, lanean trebe izateak ematen du —dio Porst jaunak—. Eta trebetasuna ere diruz ordaintzen da, bestela utopia bat litzake. Baina enpresa barruan, lan-sari kontuan ere, argitasun osoa dabilkigu. Denok dakigu beste guztiak irabazten dituen. Lan-saririk txikiena ere aundi xamarra da: ogeita bat mila pezetakoa, tallerak garbitzen jarduten direnentzat ere. Jereateak berriz 400.000 pezeta. Batetik bestera alde aundia da eta botazio bidez alda ditekete. Kontuan eduki behar da lan-sariaren inpuetoak oso gogorrak dihiago irabazi, orduan eta proporrela Alemanian: zenbat eta gezioa aundiagoan. Neronek, adibidez, lan-sariaren ehuneko 60 eman behar izaten ditut zergatan».

Enpresan, 21 motatako lan-sariak ditugu. Zer lan, zer adin eta zenbat urtetan jardun dan bakoitza begiratzen da.


Astero, 40 ordutako lana egiten dugu. Nahi duenak egin dezake lau egunetan amarna ordu edo bestela bost egunetan zortzina ordu. Irutatik batek lau egunetakoa aukeratzen du.

Oporraldi arazoan ere, aurrelari agertzen da enpresa hau. Gutxienez lau astetako oporraldiak egiten dituzte, eta zenbat eta zaharrago izan eta erantzunkizun aundiagoa, orduan eta gehiago, sei astetara iritxi arte.

—oO—

Hona, bada, hemen, benetako iraultza enpresa giroan. Diruaren agintea baztertea!


GARAZI



Langile-arte, erdiak baino gehiago emakumezkoak dira.



Porst jaunak ez du nagusi klasikoaren antzik.



Diruak ez du aginteaz zer ikusirik.

Elkarjestioa Alemanian

Joan zen urtarileko lege berri batek, enpresa barruan, langileen indarra asko jaso du. Aspaldidanik erabili ohi da Alemanian elkarjestioa oinarri bezala. Zer esan nahi du honek? Langileen ordezkari den «enpresaren kontseilu» eta enpresaren zuzendaritzaren artean arremen estuak behar direla. Baina lege zahar hori nolabait betetzen zan orain arte: enpresa bakoitzean sindikatoen edo nagusien indarren arabera. Lege berriaz, ordea, «enpresaren kontseilu» delakoak benetako indarra artzen du, benetako agintea, giza-arazoetan, alegia (lanaren antolaketan, kontrato arazoetan, lan-uzteetan, lan-orduetan, lan-saiertan...). Lege honek, gainera, ekonomi arazoa nola doan jakiteko eskubidea ematen dio langileari.

Nagusiak eta «enpresa-kontseilu»ak ilero bildu behar izaten dute. Iru ilabetez behin, langile guztiak agertzen zaie egin dena. Hau dena, lanordu bitartean, jorralik galtzeko.

Lege berria, bost langiletatik gorako enpresa guztiak bete behar dute. Zuzendaritza eta kontseilua ez badatoz bat, kanpoko epailari bat izendatzen da, epal dezan.

Alemania benetan aurrelari dugu elkarjestio mailan.